



RAUL ZELIK

«Euskal Herria ez da existitzen,
proiektu horretan parte hartzen
dutenek osatzen dute»

- **Pedro Subijana:** «Oturuntza baten arrakasta da memoria kolpatzea»
- **Olmos Gaona, kanpo zorraz:** «Argentinako herriak ez zuen xentimorik ere ikusi»
- **Eliza S.A.** 2.000 urteko bekatuak, ondasunei eusteko
- **Seaska** Adimen urriko ikasleak gelan, borondatezko diruari esker



Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan



*Harpidetza doan e-postaz
Dagoeneko 2.500 harpidedun*

hari@

euskal kulturaren buletinak 10 urte

Harpidetu zaitez:

www.argia.com/harpidetza_haria.php

 **argia.com**



- 4 Deabruaren abokatua: Ainhoa Aierbe.**
Sustrai Colina.

Gaiak

- 15 Seaskako Integrazio Batzordea. Denontzat pentsatutako eskola.** Lander Muñagorri.
18 Mariano Barriendos, klimaren historian aditua: "Antzinako jendarteetatik asko daukagu ikasteko". Unai Brea.

Iritziak

- 20 Ttakun (h)errenka. Anarkokontzientzia.**
Ana Urkiza.
21 Gora Pro Nobis. Asisko Urmeneta.
22 Txekiara joan eta Brno-ko herensugea jan.
Iñaki Zubeldia.
Izenaren habe. Joseba Barandiaran.
23 Apustua. Koldo Aldalur.
Irena Sender. Joxemari Ostolaza.
24 Bertso berriak. 31. Aitor Albistur.

Erdiko kaiera

- 29 Quemequemé jaialdia. Iruñea aldeko musikaren garrak piztuta jarrai dezan.** Iker Barandiaran.
32 Liburuak. Igor Estankona.
33 Diskoak. Iker Barandiaran.
34 Ezpalak. Jon Torner.
35 Abarrak. Gorka Bereziartua.
36 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonariz.
38 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
39 Landareak. Jakoba Errekondo.
40 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 44 Enplegua aldarrikapen nagusi bihurtu da.**
Daniel Udalaiz.
48 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.

Azkena

- 50 Independentzia.** Mikel Irizar.

5 | Elizaren ondasunak | Nagore Irazustabarrena

2.000 urteko ondasun bilketa egin du Eliza katolikoak. Erdi Aroan lortu zituen herentzia haiek ez galtzeko zirrikitu eta trikimailu ugari erabili izan ditu, eta gaur egun duen altxorra zenbatezina da (nahiz eta datu batzuk emango dizkizugun). Hori guztia, pobrezia aldarrikatuz.



10 | Pertsonaia: Pedro Subijana

Sustrai Colina

25 | Raul Zelik, Lagun armatua nobelaz

Gorka Bereziartua

41 | Herrien izenak ez daude beti lege barruan

Unai Brea

46 | Alejandro Olmos Gaona | Gorka Berasategi

Hego Amerikako hainbat herrialdek diktadura garaian egindako kanpo zor ikaragarria ikertu eta salatu du Olmos Gaonak. Bera da gai horietan aditu nagusia, eta beregan jo dute hainbat estatuburuk aholku bila. Kanpo zorra nola sortu zen eta zer eragin duen azaldu digu.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estibitz Eizaguirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arregi, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Fax: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkia: Dani Blanco.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua





“Ez gara hain inportanteak”

Ainhoa Aierbe

Eta aktoreak ekintzaileak balira?

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Dani Blanco

Hara ñoñostiar bat!

Donostian oso pijo eta oso klasikoak daude, baina alde zaharreko giroa zer? Auzoak ere marko inkonparablea dira?

Lasai, 2016ko kultur hiriburua izango zarete...

Ezetz espero dut. Hiri kulturala izateko kultura bultzatu behar da, ez fatxadari distira atera. Horretarako ez dago krisirik. Teatro asko eta antzerki gutxi.

2016an Goenkalek hortxe jarraituko du ba.

Hipoteka ordaindu arte jarraitu dezala! Bukatzen den egunean jendeak faltan botako du. Badakizu ez duela inork ikusten baina denek dakitela Leonorren berri?

Ez da izango?!

Gizakiaren kontraesanak. Lotsa ematen digu kontsumitzen ditugunak produktu onenak ez direla aitortzeak. Goenkale ere ez da, baina zer? Ziur produktu okerragoak kontsumitzen ditugula.

Komeni zaizu hori pentsatzea, egiten duzuna egiten duzula, beti izango baitzara Leonor.

Errealitatea da. Telebista etxean daukagu, antzokia ez. Ez dakizu zenbat aktore bikain dauden ofiziookook eta oso antzerkizaleek baizik ezagutzen ez ditugunak.

Erretxinduta bizi diren horietaz ari zara?

Jende askok sufritzen du horrekin, baina antzerkiak ez du telebistaren indar mediatikorik. Goenkale 20.000k ikusten bagaituzte, antzerkian 100ek.

Horrela baloratuko da aktorearen sortzaile fazeta!

Guk baloratzen dugu nola prestatzen den zirujau bat? Badakigu tabernari batek zenbateko esfortzua egiten duen taberna zabaltzeko? Guk gurea egin behar dugu eta kito. Jendearen gustukoa bada ondo eta bestela... Ez gara hain inportanteak.

Horixe bera pentsatu dut zuen lana zer prekariora den ikusita.

Orain artean zortea izan dut baina pentsatze hutsak antsietate handia sortzen dit. Ia-ia heriotzan pentsatzeak bestekoa. Horregatik hainbat arlotan lan eginez aktibo egoten saiatzen naiz.

Harrapatuta zaudela, alegia.

Ofizio honetan, ezezkoak eta baiezkoak oso garesti ordaintzen dira. Inoiz sentitu izan dut adarra jotzen ari zitzaizkidala, baina batzuetan ezin da ezetz esan.

Aizu, jubilatuz bezperetan casting-etik casting-era ibiltzea ez dago hain gaizki, e.

Horrela ibiltzea baino nahiago dut gosariak emateko taberna bat ireki, talde amateur bat osatu, eta gure lantxoak bultzatzea.

Gosariak emanez salbatuko duzu zuk euskal zinema!

Ingelesak, frantsesak ala katalanak euren zigilua duten gisan euskal zinemak zigilu propioa behar du? Zer komeni zaigu, denona ala bakoitzarena den zigilua? Ondo gosalduta erantzuteko galderak dira! ■

• ASTERO GAIA •

Elizaren ondasunak

2.000 urteko negozio katolikoa

Konstantino enperadoreak jabetzak izateko eskubidea eman zionetik, Eliza Katolikoak ondare ekonomiko itzela bildu du, sarri ondasun horiek publiko bihurtzeko egindako ahaleginak saihestuz. Azkena Nafarroan bertan izan da: Elizak Hipoteka Legearen zirrikitu bat aprobetxatu du euro gutxiren truke 1.000 eraikinetik gora bere izenean jartzeko.

NAGORE IRAZUSTABARRENA

STATIC.COM





Leireko San Salvatore monasterioko kriptak. Erdi Aroan ohikoa zen monasterioak kreditu-erakunde moduan jardutea. Eliza Katolikoak lukurreriaren aurkako mezua zabaldu arren, interes altuko kredituak ohiko diru-sarrera bihurtu ziren.

JESUSEK ESANA: errazagoa da gamelua jostorrazaren zuloan sartzea, aberatsa Zerueta Erreinuaren sartzea baino.

Baina Konstantino enperadoreak (272-337) Elizari ondasunen jabe izateko eskubidea eman zionetik, zaila izan zaio etsenpluaren bidez predikatzea. Konstantinoren oinordekoek kultu paganoa debekatu zute-nean, tenplu eta ondasun paganoak kristauen eskuetara joan ziren. Berehala fededunak *mortis causa* dohantzak egiten hasi ziren Elizaren mesedetan eta V. mendean ohitura zabaldua zen hiltzean ondasunak elizgizonen eskutan uztea, ez soilik oinordekorik gabeko pertsonen artean, baita seme-alabak zituztenen artean ere. Hala, ostrogodoen errege Teodoriko Handiak dohantza horiek mugatzeko legeak bultzatu zituen familia askoren porrota saihesteko.

Erdi Aroan Eliza Katolikoaren ondasunak izugarriak ziren. Datu zehatzik izan ez arren, Prospero Boissonade historialariaren arabera, X. eta XI. mendeetan Europa mendebaldeko ondasun higiezin guztien erdia eta herenaren artean Elizaren eskuetan zeuden. Frantziar, XV. mendearen amaieran Elizaren eta Estatuaren diru-sarrerak berdintsuak ziren; Luis XIII.aren erregealdian Eliza herrialdeko lurralde guztien herenaren jabe zen. Eta 1380an Ingalaterrako parlamentuak ere Elizak uhartearen herena zuela salatu zuen.

Baina, feudalismo betean, Eliza ez zen soilik fededunen borondatezko dohaintzei esker aberastu. Zergak biltzen zituen, hamarren ezagunak nagusiki. Abade-etxeak eta

monasterioak kreditu-erakunde gisa jardun zuten sarri, Elizak lukurreriaren kontrako mezua zabaldu arren –XII. mendean Normandiako abadietan kredituen interesa %15ekoa izan ohi ze–.

Eta prekarioen bidez lur-eremu zabalak eskuratu zituen; kontratu horien arabera, jatorrizko lurjabeak lurra ustiatzen jarraitzen zuen baina jabegoa Elizaren esku uzten zuen. Gainera prekaristak errenta finkoa ordaindu behar zion Elizari. Kontratua sinatzea erabakitzen zuen ustiatzaileak, modu horretan, nekazarien ekonomia gorabeheratsua eta etorkizun iluna saihesten zuen eta bere egoera egonkortzen. Eta Elizarentzat jokaldi borobila zen hura: jabegoa eskuratzeko errenta jasotzen zuen eta ez zuen ezertxo ere ordaindu behar, zerga-salbuetspena zela-eta.

XIII. eta XIV. mendeetan, hirien goraldiarekin bat, eraikinen jabetzak izugarri handitu zituen Elizak. Katedralak, monasterioak, elizak eta hilerriak herritarrek ordaintzen eta eraikitzen zituzten, baina jabegoa eliztarrek zuten eta haiek ustiatzen zituzten ondasun berriak.

Erreforma eta iraultza liberalak

Aro Modernoan jaurerri feudal laikoak desagertu ziren Europa osoan, baina Elizak botere ekonomikoari eutsi zion zenbait herrialdetan. Beste batzuetan, Erreformaren eraginez, gobernuak Elizaren ondasunak sekularizatu eta saldu zituzten. Horixe gertatu zen Ingalaterran eta Alemanian.

Prospero Boissonaderen arabera, X. eta XI. mendeetan Europa mendebaldeko ondasun higiezin guztien erdia eta herenaren artean Elizaren eskuetan zeuden

Frantzia eta Espainian, aldiz, Kontraerreforma nagusitu zen eta Elizak Erdi Aroan pilatutakoari eutsi zion, gobernu liberalek egoera aldatzeko ahaleginak egin zituzten arte. Elizak bildutako lur-eremu eskergak arazo bihurtu ziren gobernu burgesentzat. Onibarrak ez zituzten ustiatzen edo garatu gabeko sistemen bidez lantzen zituzten, produktibitatearen kaltetan, ez zuten zergarik ordaintzen, eta gainera, indar feudalen erresistentzia politikoa babesten zuten. Finean, garapen ekonomiko eta politikoa oztopen zuten. Frantzia 1789ko Iraultzaren ondorioz, Elizaren ondasunak sekularizatu, nazionalizatu eta saldu zituzten. Espainian, berriz, desamortizazio ahaleginak berandua go iritsiko ziren eta ez ziren hain eraginkorrak izan. Horrenbestez, gaur egun ere Eliza Katolikoaren ondare ekonomikoa oso bestelakoa da Hego eta Ipar Euskal Herrian.

Desamortizazio antzuak

Espainiako desamortizazio ahaleginik eza-gunena Mendizabalek 1837an abiatu zuena izan arren, lehenago ere izan ziren beste



WORDPRESS.COM

Juan Alvarez Mendizabal (1790-1853). Mendizabalen desamortizazio ahalegina ezagunagoa izan arren, Madoz nafarrak abiatu zuena eraginkorragoa izan zen.

saiakera batzuk. 1766 eta 1808 urteen artean, Karlos III.aren eta IV.aren erregealdietan, gobernuak Jesusen Konpainiaren, ospitaleen, umezurtzetxeen eta erruki-etxeen ondasunak desamortizatu zituzten.

Jose I.a Bonapartek ere, Espainiako errege izendatu zuen Napoleonen bidetara jarraiki, Elizaren ondarea murrizteko ahalegina egin zuen. Baina benetako desamortizazioa baino, gerrako gastuak ordaintzen laguntzeko aldi baterako desjabetze edo konfiskatzea baino ez zen izan.

Legez ez zion jabetza Elizari kendu eta, gainera, 1814an Independentzia Gerra amaitu zenen, Elizak ondasunak berreskuratu zituen.

1835ean, Maria Kristina erregeorde zela, Juan Alvarez Mendizabal Ogasun ministro izendatu zuten eta handik hiru hilabetera, presidente. Karlismoari aurre egin ahal izateko diru-sarrera premia bizia zuen eta, horregatik, desagertutako ordena erlijiosoaren ondasunak saltzeko agindua eman zuen, bide batez nekazaritza-ekoizpena bizitzeko eta zor publikoa murrizteko asmoz. 1836an

Nafarroako ondare publikoa txakur txiki batzuen truke

1998an PPren gobernuak Espainiako Hipoteka Legearen 5. artikulua ezabatzeko erabakia hartu zuen, kulturguneak erregistratzea debekatzen zuen puntua hain zuzen. Elizak, zirrikitu hori baliatuta eta lege horren 206. eta 207. artikuluek babestuta, Nafarroako eliza guztiak Jabetza Erregistroan inskribatzen hasi zen. 2007. urtean Nafarroako zenbait herritar Eliza burutzen ari zen kanpainaz jabetu ziren eta Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma sortu zuten Elizaren jokabidea salatzen. Besteak beste, *Escándalo monumental* (Altaffaylla, 2009) liburua argitaratu dute

206. artikulua ondasunak erregistroan inskribatzeko pribilegioa ematen dio Elizari eta, 5. puntuaren oztipoa gaitututa, Elizbarrutiaren baimena baino ez zuen behar ondasunak bere izenean jartzeko. Hala, 1.000 eraikin baino gehiago erregistratu zituen, inskripzio bakoitzeko soilik 20 edo 30 euro ordainduta. Gainera, prozedura horrek ez dakar inskripzioak publiko egiteko eta argitaratzeko beharrik. Beraz, ondasun publikoak erraz pribatizatu zituen, herritarrek nahiz ordezkari publikoek ezertxo ere jakin gabe.

Elizak ordezkariak diote ondasunen erregistroa ez zutela irabazi-asmoekin egin "kudeaketa eraginkorragoa egiteko eta kristauen mesederako" baizik. Plataformako kideek, hainbat adituk eta abokatuk, eta



WIKIMEDIA.ORG

Altsasuko Jasokunde Elizako ganga. Altsasuko Udala izan zen Elizaren jarrera salatzen auzitegien bidea hartu zuen lehenetarikoa.

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak zein Auzitegi Gorenak emandako zenbait epaiek kontrakoa diote, ondasun horiek publikoak direla, alegia. Eta Nafarroako udal gehienek ere bat egin dute ekimenarekin. Altsasu, Berriozar, Burlata, Etxauri, Irurtzun, Leitza, Puiu eta Uharteko udalak izan ziren auzitegien bidea hartzen lehenak eta egun 117 udal ari dira berena den ondarea berreskuratzeko ahaleginetan.

Zer ondasun ditu Eliza Katolikoak?

Inork ez daki zenbatekoa den Eliza Katolikoaren ondare ekonomikoa. Elizak berak ez du jakitera ematen, eta orain arte behintzat ez dute horretara behartu, funtzionamendu diozesarrak babesten baitu. Datu zehatzik ezean, hona hemen zantzu batzuk.

Vatikanoaren urre altxorra, bereziki Amerikako kolonizazio garaian bildua, munduko handienetakotzat jotzen da, datu zehatzik jakinarazi ez arren. Espainian, Elizak higiezinetan du ondare nagusia. Galiziako *Xornal* egunkariak 2006ko abuztuan argitaratu zuenez: "Eliza 100.000 eraikinen jabe dela kalkulatu da. Bestela esanda, Espainiako ondare historiko-artistikoaren %80 Elizarena da". Komunikabide galiziarren arabera Toledoko alde zaharreko zoruaren %70 Elizaren esku dago, eta Avilako, Burgosko eta Santiagoko auzune historikoetan ere antzera gertatzen da.

Espainiako Eliza, besteak beste, Inditex, Endesa, Banco Popular eta Telefónica-ko akzioduna da. Elizako goi-karguek sortutako Umasges sozietatearen bidez, burtsan inbertitzen du. Vatikanok ere hainbat enpresa handiren akzioak ditu: General Motors, IBM, Disney... Horrez gain, Egoitza Santuak zerbitzu eta telekomunikazio enpresak, bankuak eta seguru-etxeak ditu, 12.000 milioi eurotik gorako balioa dutenak. Eta, hala ere, Vatikanok ez ditu bere funtzionario gorenaren, Aita Santuaren bisitak finantzatzen.

Espainiako Estatuak eta Vatikanok Espainiako Eliza Katolikoaren gai ekonomikoei buruzko akordioa sinatu zuten 1979ko urtarilaren 3an, Elizaren finantzazio publikoa eta zerga-salbuespena zehazteko. Soilik Estatuko Aurrekontu Orokorretan, Espainiako Elizari 141 milioi eurotik gora egokitu zitzaizkion 2005ean. Hori gutxi balitz, urte horretako azaroan *El País* egunkariak argitaratu zuenez, orduko PPren gobernuak

Apezpikuen Batzarrari beste 35 milioiko urteroko oparia egitea erabaki zuen, lege egokitutako dirulaguntza gain.

Datu zehatz gutxi daude Espainiako Elizak bere ondarea gordetzeko administrazio publikoetatik jasotzen dituen dirulaguntzei buruz, baina 2006an Ser irratia Caja Madrid fundazioko txosten baten berri eman zuen. Txosten horren arabera, Elizak 2001ean udaletatik 106 milioi euro jaso zituen "ondarea kontserbatzeko". Gainera, bost urte geroago Estatuak 2.500 milioiko laguntza eman zien hezkuntza zentro pribatu katolikei. Guztia bilduta Elizak laguntza publikotatik urtero 3.300 milioi euro inguru jasotzen dituela ondorioztatu dezakegu.

Eta, horrez gain, abantaila fiskalak ere baditu: besteak beste erosketengatik BEZik, ondorengotza-zergarik eta dohaintza-zergarik ez du ordaintzen.



CITYPICTURES.COM

Toledoko hiri zaharreko lurzoruaren %70 Eliza Katolikoaren esku legoke.

Mendizabal dimisioa aurkeztera behartu zuten, baina Espartero jeneralak boterea lortu zuenean, berriro izendatu zuten Ogasun ministro. Orduan, Esparterok klero sekularraren ondasunak desamortizatzeko legea (1837) indarrean jarri zuen.

Mendizabalen desamortizazioak elizaren ondasunak eta pribilegioak —besteak beste, hamarrenak— deuseztatu zituen, zor publikoa murriztu zuen, baina nekazaritza-ekoizpena ez zen areagotu eta deforestazio larria eragin zuen. Gainera, 1851n Esparteroren gobernu progresista erori zenean, legea bertan behera geratu zen eta gobernuaren eta Elizaren arteko harremanak lehengoratu zituzten.

XIX. mendeko desamortizaziorik eragin korrena Pascual Madoz iruinsemeak Ogasun

1933ko Konfesio eta Erlijio Kongregazioen Legeak jabetza publikoa aitortu zien tenplu erlijiosoei eta horiek gordetzen zituzten artelanei

ministroa zela abiatutakoa izan zen. Legea 1855ean onartu eta ezarri zen eta mende amaierara arte indarrean egon zen. Huraxe izan zen ondasun gehien salgai jartzea lortu zuen desamortizazioa. Baina ondasunen %30 baino ez ziren Elizarenak; desjabetutako ondarearen %50 udalena zen lehenago, eta beste %20, benefizentziarena.

Errepublikak kendu, Francok atzera eman

Espainiako II. Errepublikak ez zion Elizari jabetzei eusteko aukerarik eman. 1933ko Konfesio eta Erlijio Kongregazioen Legearen 11. artikulua jabetza publikoa aitortu zien tenplu erlijiosoei, eraikin gehigarriei, errektore-etxeei eta horiek gordetzen zituz-



Azkaineko hilerria (Lapurdi). 1789ko Iraultzaren ondorioz, Eliza Katolikoak Frantzian eta, beraz, Ipar Euskal Herrian zituen ondasunak sekularizatu egin ziren. Nekazaritza-lurak saldu zituzten eta elizak, katedralak, hilerriak eta abar esku publikoetan geratu ziren.

ten altzariei, apaindurei eta orotariko artelanei. 12. artikulua zioenez, aipatutako ondasunak “Eliza Katolikoaren ardura-pean egongo dira, kontserbazioari, kudeaketari eta erabilerari dagokienez”. Baina “Elizak ezin izango du horien gaineko jabetzarik izan, eta esleitutako eginkizunetarako soilik erabiliko ditu”.

Ordea, 1946an, Francoren diktadurapean, Hipoteka Legea indarrean jarri zen eta, Estatua-ren katolikotasunaren babesean, eskumen eta pribilegio ugari eman zizkion Elizari.

1978ko Konstituzioak estatu ez-konfesionala ezarri zuen eta izaera publikoa aitortu zien atzera elizei, baselizei, apaiz-txeei, hilerriei eta halakoei.

Dena den, Nafarroan gertatutakoak agerian utzi duenez, Elizak baditu zirrikituak bere ondasunak ugaritzeko, bultzaka, gamelua jostoratzaren zuloan sartzen ahalegintzeko. ■

- Arroila Jaitsierak
- Espeleologia
- Zubi saltoa
- Eskalada
- Via Ferratak
- Mendi ibilaldiak
- Elur erraketak
- Orientazioa
- Mendiko bizikleta
- Multiabentura
- Ikastaro teknikoak
- Abentura bidaiak
- eta askoz gehiago...

**INGURU
ABENTURA**

- Descenso de Cañones
- Espeleología
- Puenting
- Escalada
- Vías Ferratas
- Senderismo
- Raquetas de nieve
- Orientación
- Mountain bike
- Multiaventura
- Cursos técnicos
- Viajes de aventura y mucho mas...

www.inguruabentura.com

info@inguruabentura.com

Tel: 635 748 948

San Juan 18

Albeniz - Asparrena

Araba

Pedro Subijana

«Noiz arte gidatu behar du gure geroa, egiten dugunaz piperrik ez dakien jendeak?»

Mahaian eseri, ahozapia lepo-jiran lotu, eta on egin.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Otordua desitxuratzen ari omen gara.

Egunerokoan bai. Oraintxu arte sendi osoa biltzen zen mahai bueltan, jan bitartean hone-taz eta hartaz aritzeko. Formazio eta heziketa-ren ezinbesteko osagarria zen otordua. Gero-ra jendea telebistaren aurrean afaltzen hasi zen, eta telebistak elkarrizketa hiltzen du. Gai-nera, bakoitzak bere ordutegiarekin etxetik kanpo lan egiten duenez, etxera heldu, hoz-kailuan zerbait harrapatu eta tonto-kutxaren aitzinean betetzen dugu sabela. Hori hala da eta hala izaten segitzeko arriskua du, baina otordu konpartitua gure identitate zeinu bat da, eta nor izatekotan, kondanatuta gaude horien alde borroka egitera.

Zuen borroka, gastronomiaz mintzatzean fak-tore nutrizionala eta alde ekonomikoa baizik aipatzen ez dituzten hedabideen aurrean jateko plazera aldarrikatzea da?

Otorduaren errituala berez da ederra, eta ele-mentu gutxi batzuk gehituz sublimatu liteke. Gogoangarritasuna da otordu batek utz die-zazukeen aztarna ia bakar eta gorena. Memo-ria kolpatzean datza oturuntza baten arrakas-ta. Filosofia, urte-sasoi, produktu eta produktoreen errespetutik abiatuta hori da gure azken helburua. Ausartzen naiz esatera jateko plazera munduko plazerik handieneta-koa dela, zahartzean ere irauten duelako bate-tik, eta egunean sarri-sarri egin zenezakeelako bestetik. Esaterako, kolaboratu dugu gaixo

terminalak artatzen dituzten medikuekin. Egia da ez zaiela askorik geratzen, baina gera-tzen zaien hori plazer bihurtzea ezinbestekoa izateaz gain itzela da. Horra jatearen plazera-ren indarra. Ez ginen alferrik gure ofizioaz maitemindu, eta gure lanaren emaitzaz inor maitemintzen denero, gure maitemina bider-katu egiten da.

Ez al da paradoxikoa beti-betiko produktu fres-koak *delicatessen* dendetan saltzea?

Produktu horiek egunetik egunera urriagoak dira, kantitatean urritu direlako batetik, eta produktore onak topatzea izugarri kostatzen delako bestetik. Zer gertatu den? Horretara dedikatu diren ekoizle gehienak atzera egin dutela ordainik jasotzen ez zutelako, egiten zutenaz bizitzeko modurik ez zutelako. Goi-zean goiz jaiki, lanak aurreratu, merkatura joan, hotza janez saltzen hasi eta erre-gorritz-ko bitxidun atso-zahar bat zure barazkien prezioa 20 xentimoz jaitsi nahian pipertzen zaizunean zer pentsatu behar duzu? Atso horrek ez du ulertzen barazki bakoitza zure bizitza dela? Orduan, ekoizleei bi aukera geratzen zaizkie, ofizioz aldatzea edo egiten dutena are hobeto egin eta garestiago ordai-naraztea. Zorionez, oraindik plus hori ordain-tzeko jendea badagoenez, denda horiek fun-ktzionatzen dute. Zer gertatu da oilaskoarekin? Haurra nintzenean oilaskoa ezkontza edo banketeetako otordua zen, baina benetako



Nortasun agiria

Donostian jaio zen 1948an. Zarauzko Luis Irizar-en eta Madrilgo ostalaritza eskole-tan ikasia, Akelarre jatetxe ospetsuko burua da 1975etik. Liburu eta telebista programa anitzetako egile, sari gastronomiko ospetsuen irabazle, 2007tik hona hiru Michelin izarren jabe da.

oilaskoa jaten genuen, bost hilabetekoa, kanpoan eta naturalki hazia. 30 eguneko oilaskoak jaten ditugu egun, ia hezurrik ez daukatenak, papilla bezain bigunak. Ados, garrantzitsua da prezioan dagoen aldea, eta are garrantzitsuagoa denak elikatzeke aukera izatea, baina benetako oilaskoa hazten bereak eta bi egin dituenari ez eskatu prezio merke horietara errenditzeko. Non dago funtsezko arazoa? Hezitzaileek, eskolak, familiak eta abarrek ez badute ume bat benetako produktuak jatera ohitzen eta plastikozko oilaskoa janez gustura bizi bada, ez zaio benetako gustatuko fuerteezia irudituko zaiolako. Memoriak ez dizu inoiz ezagutzen ez duzunik eskatuko. Are gehiago, buruak ezagutzen ez duena ukatzeko berezko joera dauka.

Hori hala, nola pasatzen da janaria saltzetik mundu ezezagunetan barnako esperientziak saltzera?

Ez gara kontziente izan, euskal sukaldaritza berriak suposatu zuen oihartzunaz kontziente izan ez ginen gisan. Dena borrokalari

senez eta konbentzimenduz egin izan dugu beti, ez marketin ikuspegitik. Malabarismo asko egin behar izan dugu ez desbideratzeko, askoz errazagoa eta erosoagoa zatekeelako piramidearen puntara dedikatu beharrean oinarrian bertan-goxo aritzea. Izugarri kostatzen zait egiten dugunari artea deitzea, handustekoa iruditzen zait, baina une jakin bate-tik gora dena da innobazioa, ingenioa, inkonformismoa, are zailagoa bilatzea... eta funtsean, horixe bera da artea. Artearen oinarrian, ordea, zientzia dago. Sukaldaritza beti izango da zientziaren babesa behar duen beste zientzia bat. Esaterako, hastapenetan, ate batzuk jotzen genituenean ez gintuzten serio hartzen, eta interesa erakutsiz zein geurean nabarmenduz baizik ez dugu lortu jende baten errekonozimendua eta beste baten harreman parekidea. Alegia, errekonozimendu profesionalak eta sozialak zabaldu zizkigula ateak, eta orduantxe jarri ahal izan genuela mundu hau zalantzan gauzak beste era batera egiten hasteko. Gogoan dut, orain 30 urte legatza erditik zabaldu eta bizar



batzuk topatzen genituela eta arrandegian arra zelako zela esaten zigutela. Zer ar eta zer kristo, gerora deskubritu dugu anisakis-a zela eta orain badakigu.

Derrigorrezkoa da arlo orotako jakintza partekatzea?

Niretzat bai. Niri erakutsi egin zidaten, eta ez daukat eskubiderik hori niretzat gordetzeko.

Logikoena jakintza konpartitzea da, ahal bezainbat jenderekin gainera, ahal bezainbatek jaso eta zabaldu dezan. Niretzat ez da eskuzabaltasuna, ardura eta zintzotasuna baizik. Konbentzituta nago lorpenak eta aurre-rapenak konpartitu eta denon eskura jarri behar diren mundu batean bizi garela. Batzuei ez zaiela interesatuko? Ados, baina jakin-mina duena beti arrimatuko da.

Zuri Michelin izarrak arrimatu zaizkizu. Zer suposatzen dute?

Ondorio dira, ez helburu. Hogeitaz baina gehiago pasa ditut bi izarrekin, eta gutxien espero nuenean arrimatu zitzaidan hirugarrena. Aho biko arma dira. Batetik errekonozimendu handia dira eta zure egoa oso puztua eta poztua geratzen da. Denoi gustatzen zaigu jainkoen Olinpoan egotea. Bestetik, jende bat justu horrexek frenatzen du, eta bi izar nituenean askok esaten zidaten hirugarrena merezi nuela, baina orain ez dudala

horretarako mailarik da esaten ahal didaten bakarra. Gainera, izarrak galtzea beti da arrisku bat, paniko handia sortzen digun uneoroko arrisku bat, baina ez negozioa hondoratu-ko ligukeelako, lorpenak porrotak baino gehiago gustatzen zaizkigulako baizik.

Kritikari eta gida gastronomikoen menpe zaudete?

Egiari zor, rankingaren ideia ez dut neure egiten. Faltsua iruditzen zait, irreala, ranking hori beti izango delako pertsona jakin batzuen irizpidearen araberakoa. Askotan pentsatu izan dut nork eman dion halakori honetaz eta hartaz aritzeko eskumena, zer iturritatik edan duen, zer dakien honetaz, zer titulazio daukan, zer gaitasun. Oso eztabaidagarri egiten zait dena. Uste dut hala ere, kritikariek gehiago balio dutela ezezagunak deskubritzeko, ezagun eta kontsakratuak hondoratzeko baino. Baina ez dago dudarik kritika txar batek izorratu egiten zaituela, batez ere, nik kritikari horri buruz izan neza-keen iritzia lagunartean emango dudalako eta berak niri buruzkoa komunikabide batean jarriko duelako, oker egonda ere mina eginda dagoela jakinik. Logika hori Internetera eramanez gero, akabo, galduta gaude, edozein kontakatiluk edozer idatzi dezakeelako. Horregatik gu gurera, eta gure buruarekin beste inorekin baino exijenteagoak izan beste erremediorik ez dugu.

Exijentzia horrek moldatzen dizu soa? Nolako da sukaldariaren begirada?

Denok daukagu gure deformazio profesiona-la, denok bizitzari begiratzeko gure prisma. Beti nabil erabilgarri suertatzen ahal zaidan zerbaiten bila. Pentsa, atzerrira noanean heldu eta egiten dudan lehen gauza merkatu-ra joatea da, eta bigarrena bertako jatetxe tipiko eta tradizionalak antzematea. Berriki Londresen izan naiz familiarekin, eta ahal izan dudan guztietan joan naiz Harrods-eko elika-

gai sailera eta orduak pasa ditut ikuskizun eder horri begira. Etengabe gabiltza bila eta bila eta bilaketaren aurreneko pausoa kontentplazioa da. Zer bilatzen dugun? Askotan gastronomiarekin zerikusirik ez izan arren gastronomiara ekarri daitekeen edozer. “Zergatik ez dugu beste modu batera egiten?” da gure etengabeko galdera. Arrautzak beti egin dira frijituta edo egosita, baina zergatik ez ditugu berotuko lanpara baten azpian? Deskubritu eta konpartitu, horiek dira gure hitz gakoak.

**“Izugarri kostatzen zait egiten
dugunari artea deitzea,
handiustekoa iruditzen zait,
baina une batetik gora dena da
innobazioa, injenioa,
inkonformismoa... eta funtsean,
horixe da artea”**

Zuen sukaldaritzan zenbateraino da gakoa negozio hitza?

Gutako inor ez da berezko enpresaria. Denak hasi gara sukaldariak izaten, eta inongo aberaskillo batekiko menpekotasunik gabe, gure lana askatasunez eta geuk nahi erara egin ahal izateko geu bihurtu gara enpresaburu. Gure buruak kudeatzen ikasi behar izan dugu, baina esaterako, nik ez daukat nire burua enpresari ontzat. Zorionez, nigan oraindik garrantzitsuagoa da platerak ondo asmatu eta hobeto prestatzea errentagarriak izatea baino. Horrek zer ondorio izan duen? Nire bizitzan ez dudala inoiz txakur txikirik eduki, baina era berean, ez dit gehiegi ardura ez delako sekula nire helburua izan, eta gainera, gastatzeko astirik ez dudalako. Bada jende bat beste fazeta hori daukana, askoz *business*agoa dena, eta berez hori ez da ez ona ez txarra, baina ni ez naiz kasta horretakoa.



Urki
TXAKOLINA

Askizu Auzoa, Getaria
Tel.: 943 14 00 49 • www.urkitxakolina.com



GALDE SHORTA

Juan Mari Arzak

Lagun handi bat eta amantala jantzita hilko den jatetxe kudeatzaile itzela.

Arguiñano

Geniala, benetakoa. Jendeak antzeztu egiten duela uste du, baina ez, horrelakoa da.

Martin Berasategi

Ipurterrea, urduria. Dena nahi du eta dena lortuko du.

Aduriz

Sukaldeko poeta eta filosofia. Pintxe bezala izan nuenean ez nuen susmatu ere egiten zer egosten zen lapiko horretan.

Hilario Arbelaitz

Sukaldari handia, zintzoa, eta gure arteko gizon natural eta gardenena.

Eneko Atxa

Oso kaxero ilustratua da. Indar handikoa, grina dariona. Oso kontutan hartzekoa.

Ferran Adrià

Genio bat. Guri bonbilla pizten bazaigu berak fokuak dauzka.

Paul Bocuse

Pertsona itzela, komunikatzaile handia, eta bere 80 eta piku urteekin denen eskura jarraitzen duena. Bizirik egon arren, Frantzia eta bere sukaldaritzaren historiaren parte da.



aurreikusi eta gidatzeko. Noiz arte gidatu behar du gure geroa egiten dugunaz piperrik ez dakien jendeak? Dena bulegoetatik atera gabe erabakitzen duten burokratez itota gaude, eta horrela ezin da herririk egin. Pentsatu nahi dut, oso burugogorrak diren arren, garbantzuaren gisan burua beratzaren jarri eta jarraitu beharreko bidea zein den barneratu dutela, baina beldur naiz paparrean jartzeko domina erraz bat bezala ikusten dutela afera.

Dominak domina, ez dago txirrindularirik Tourra 30 urtez jarraian korritzen duenik, eta zuek aldiz, etengabe egurrean...

Ez pentsa, gurean ere oso gutxi gara 30 urte daramatzagunak. Askori ez die konpentsatzaren, ez die merezi. Uneoroko estres hau bizigarria bezain hilgarria da. Era berean, egia da denak korrika doazen lasterketa batean baldin bazaude, geratzen bazara besteek pasa egiten zaituztela. Bizilegea da. Orduan bai, aurrera egiteko orduan badago tropel buruan jarraitzeko grina, baina bereziki neurrigabeko pasioa, ilusioa eta maitasuna daude. Beste batentzat lanean zein nire kontura aritu naizenean izpiritu berbera eduki dut, eta gaur egun ere, hain nauka nire lanak harrapatuta ahaztu egiten dudala hau enpresa bat ere badela. Oرائنتسۇ entzun diot puntako zientzialari bati oso ondo zegoela erabakitzera orduan motibo eta arrazoiak edukitzea, baina askotan ez zegoela intuizioa bezalakorik. Gu intuizioaren semeak gara. Bizi-aukera bat da, baina zer pena ehun urte baizik ez garelako bizi. Gorputzak mugarik jartzen ez didano nire amets eta anbizioak borobiltzen segi nahi nuke, baina ez dut Akelarre nirekin bukatzerik nahi. Lan hau guztia egin badugu norbaitek baliatzeko da. ■

Zu herri honen enbaxadore izendatu duten kastakoa zara.

Herria egiteko gure modua da. Herri bezala munduan errespetatuak izateko bide bakarra bakoitzak berea ezin hobeki egitea da. Bakoitza berean dena emanez ari bada sekulakoa izango da herria. Hori da gure harrotasuna, ez dirua. Hortik doa Basque Culinary Center-en ideia ere. Jendea ez da ohartzen herri honetako erakunde eta poltronazaleek zenbat danbateko eman dizkiguten muturrean, eta halako zentro bat gurean martxan jartzeak zer sinesgarritasun suposatzen digun munduaren aurrean. Horrek ez du esan nahi sukaldaria izateko unibertsitatetik pasa beharko denik derrigorrez, baina bai batzuk gai izango direla espezializatu eta hurrengo urteetako pausoak

• Seaskako Integrazio Batzordea •

Denontzat pentsatutako eskola

Herri Urrats festa maiatzaren 9an egingo da. 1999-2000 ikasturtean hasi ziren Seaskako ikastolak adimen urriko haurrak gainerakoekin batera eskolatzen. Aitzindariak izan ziren Frantziako Estatuan. 2005ean Frantziak eskubide hau lege bilakatu bazuen ere, gaur egun oraindik administrazioak ez du horretarako behar adina baliabide jartzen.

LANDER MUÑAGORRI

Argazkiak: Integrazio Batzordea

HAMAIIKA URTE eta beste hainbeste ikasturte-tik hona, ahalmen urriko haurrak gainerako hurrekin batera hezteko pausoak ematen ari da Integrazio Batzordea. Ahalmen urrikoak izanagatik ere, haur guztiek eskolatuak izateko eskubide berbera daukatela, horixe aldarrikatzen baitute Seaskako eta Integrazio Batzordea elkarteko kideek. Epe honetan, orotara, laguntza berezia behar duten 41 haur igaro dira ikastoletatik.

Integrazio Batzordea (IB) sortu aurretik, salbuespenak salbuespen, ez zen adimen urriko inor eskolatu Iparraldean, ikastetxe arruntetan. Ez ikastoletan ezta eskola publiko edo katolikoetan ere. IB elkarteko lehendakari Dominique Idiartek kontatu digunez, Senperreko ikastolan laguntza berezirik gabe egon zen haur bat 8-9 urte bete arte. Baina “Donibane Lohizunen eman ziren beste hiru eskolatze, eta euren gurasoek, bilkura baten





Dominique Idiarten hitzetan, "ikastolako irakasleak haurrekin buruz buruko lan bat egiten du, klasean emandako ikasgaia ahal bezain luzaz segitzeko moduan".

ostean, aurreko esperientzia aztertu zuten. Bazekiten laguntza berezirik gabe ezin zela ezer egin, eta Frantziako Estatuan garai hartan halako ezer egiten ez zenez, Seaskari proposatu zitzaion". Eta euren erantzuna positiboa izan zen.

Gurasoen inguruan adiskide talde bat sortu, eta Hegoaldean egiten zena aztertzen hasi ziren, hura eredu hartuz. Hala, haurra gainontzekoekin integratzeko, eguneroko bizitzan eta pedagogian sakondu behar zela ikusi zuten. "Ikastolako irakasleak haurrekin buruz buruko lan bat egiten du, klasean emandako ikasgaia ahal bezain luzaz segitzeko moduan", azaldu du Idiartek. Bestetik, haurrak errutinari eusteko, ikastolako ordutegian AVS teknikaria (laguntzailea) izaten du eskura, honek lasaitasuna eta segurtasuna transmititu diezaion eta egunerokotasunean ongi integratu dadin.

Hastapen haietan, Hezkunde Nazional eta Frantzia mailan ez zen alor honen inguruan



ezer ezagutzen. Eta laguntza hauek nola finantzatu, horrek ekarri zituen arazo eta buruhauste nagusiak, azken finean gastu hau guztia ikastolen menpe geratu baitzen. Gauzak horrela, kontzertuak eta bazkariak egiten hasi ziren, "behar genuen dirua juxtu, baina gureganatuz".

Frantziar sistemari aurre hartuz

Seaskako ikastoletan adimen urriko haurrak integratzen hasi zirenean, Frantzian oraindik eman ez zen mugarrria jarri zuten. Estatuan, haur hauek zentro berezietara joaten ziren, gainerako haurrekin batera hezten saiatu beharrean. Integrazioarekin lan egiten 1999an hasi ziren Donibane Lohizunen, eta 2005ean Frantzian lege berria jarri zuten indarrean. Horren arabera, adimen urriko haurrek eskubidea dute gainerako haurrekin eskolatuak izateko. Horren ondorioz, "guk ematen genituen postu horiek ofizialak ziren, eta laguntza batzuk jaso genituen". Baina legea idazteak askotan ez du berarekin ekartzen arau hori osotasunean betearaztea, eta hori da kasu honetan gertatu dena.

Orain bost urte plazaratu lege horren ondoren, Integrazio batzordeak (2004an elkarte izendatua) laguntza batzuk jaso zituen, baina ez zitzaizkien AVS postu guztiak finantzatu. Urtean zehar eskolatzeko berriren bat emanez gero, horiek ez zituen bere gain hartzen Hezkunde Nazionalak. "Guk ordaintzen genuen, eta hurrengo ikasturtean kontuan hartzen zuten". Aurtendaino. Iragan urtean negoziazioak hasi zituen Integrazio Batzordeak AVS lanpostua ofizio izatea ahalbidetu zezaten, baina negoziazioek porrot egin zuten. Hala, "iaz hartutako laguntzaile

AXAFLA BAITA HOTELA

64310 Azkaine
Tel. 0559540030
achafla-baita@wanadoo.fr

www.hotel-achafla-baita.com

postu guztiak gure gain geratu dira, eta orain gure kargu dauzkagu 10 AVS eta 8 hezitzaile”, kritikatu du Idiarrek. Gastu hauek guztiak direla eta, Integrazio Batzordearen diru beharra %30 emendatu da. “Legeak esaten du haurrari behar zaiola ekarri behar duen laguntza. Gure ustez hezitzaileek egiten duten lan hori beharrezkoa da, baina eurak esaten digute laguntzaileak ematen dizkigutela, eta horrekin nahikoa dugu-la”, jarraitu du.

Haurraren integrazioan, halere, hezitzaileak funtzio garrantzitsua dauka, Idiarrek azaldu duen gisan, azken finean AVS laguntzaileak ez baitizkio klaseko gaiak azaltzen. Hemen-dik aurrera gainera, AVSen lana eskolaz kanpoko ekintzetara ere zabaltu nahi dute Integrazio Batzordeko kideek. Nahikoa endredo badute ordea.

Finantza sistema, borondate sistema

Urterik urte Integrazio Batzordeak zuen diru beharra emendatzen joan da, batez ere 2005etik aitzina, adimen urriko haurren eskolatzea eskubide bihurtu zenetik. Gastu hauei aurre egiteko, hasierako kontzertu eta bazkari-erri bitartez egiten zuten kanpaina gehitu zitzaion. Gizarteak ongi erantzun zuen, baina haurren kopuruak gora jarraitzen zuen. “Estatuak bere laguntza ere ekartzen zuen, baina beste molde bat atzeman beharra geneukan”, dio Idiarrek.

Hala, enpresa eta elkartei jo zieten atea. Eta hauek erantzun. Adibidea jartzearen, aurre orotara 70 enpresek eta 32 elkarteak eman dute euren laguntza, 1.268 partikularez gain. Denetara, 2010ean 115.000 euro lortu behar dituzte, inoiz baino gehiago, baina oraingoz bildu dutenak iaz behar zuten diru zama berdindu du kasik, 87.131 euro.

Integrazio Batzordeak kanpaina zabaltzen

**Adimen urriko haur batentzat
arrunt aberasgarria izan daiteke
eskola arrunt batera joatea, eta
besteentzat zer esanik ez.
Ezberdintasuna eskolatik lantzen
hastea da gakoa**

duenean, hiru hilabetez egiten du sentsibilizazioa. Orain ordea, lekuan lekuko batzarrek eskualde bakoitzean ekintzak antolatzen dituzte adimen urriko haurrak eskolatzeko duina izan dezaten.

Bostak bat adimen urriko haurren eskubideen alde

“Eskolatze eskubidea Hezkunde Nazionalak eta botere publikoek behar lukete segurtatu”, aldarrikatu du Idiarrek. Baina hau horrela gertatzen ez denez, Handik kolektiboa sortu dute hainbat elkarte. Beren baitan daude APES Côte Basque haur elkorren guraso elkarteak; Irun, Hondarribia eta Hendaiako Aurreratu elkarteak; Autisme Côte Basque; Chrysalide Trisomania; eta Integrazio Batzordea. “Bakoitzak gure alorrean egiten dugu lan, baina eskubide hau betetzeko elkarlana egon zitekeela pentsatu genuen”, zehaztu du Integrazio Batzordeko lehendakariak.

Kolektiboaren bitartez administrazio frantsesari berak ezarritako legea bete dezan eskatu nahi diote. Horretarako, auzitegi administrazioa joan behar izanez gero ere, Hezkunde Nazionalaren aurka jotzeko prest daude.

Azken finean, adimen urriko haur batentzat arrunt aberasgarria izan baitaiteke eskola arrunt batera joatea, eta besteentzat zer esanik ez. Funtsean, ezberdintasuna eskolatik lantzen hasiz gero etorkizuneko gizarteak ez ditu adimen urrikoak begi txarrez ikusiko. “Nire haur denboran adimen urriko haurrak ezagutu nituen, eta etxeko zuloan egoten ziren. Gizarteak ez zituen onartzen” gogoratu du Dominique Idiarrek. Egoera berriro errepika ez dadin eta behar bezalako baldintzak lortzeko lanean eta borrokan jarraitzen dute beraiek. ■



Senpereko aintziratik bi kilometretan eta mendiez inguratuta, MANEX kanpalekua: bakantzetako eta deskantsuko parabisu bat. 30 lekuek presentatzen dute bista bat ezin ederragoa. Ongi etorri !

64310 SENPERE
Tel. 05 59 54 13 42
camping.manex@wanadoo.fr
www.campingmanex.com



Pyrénées Atlantique
HOTELA
64310 SENPERE

Tel. 0559540222 - Fax 0559544254 - hotel-pyrenees@wanadoo.fr
www.hotel-pa.com

• Mariano Barriendos, klimaren historian aditua •

«Antzinako jendarteetatik asko daukagu ikasteko»

Bartzelonako Unibertsitateko irakasle honek hogeitaz hamar urte darama klimaren historia aztertzen. Eta ez klimarena bakarrik, baita ere antzinako jendarteek haren aurrean izan duten jarrerarena ere. Datorkigunari aurre egiteko irakaspen baliagarriak atera ditzakegu hortik, nahiz eta, Barriendosek ohartarazi digunez, ate joka dugun fase klimatikorako aurrekari historiko argirik ez izan.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñigo Azkona

Zelan aztertu iraganean zer klima egon den? Eguraldiaren neurketa zehatza nahikoa kontu berria da...

Izan ere, informazio osatuena, muturreko gertakari meteorologikoak ondo ezagutzeko balio duena, azken 50 urteetakoak baizik ez da. Eta halako gertakari larriak gutxitan gertatzen direnez, horietako asko ez daude metodo modernoekin kontrolpean. Horregatik ona da iraganari begiratzea; tresnekin neurtutako datuen ordez, bestelakoek esango digute klima nolakoa zen.

Zer iturritara jo daiteke horretarako?

Mediterraneo inguruko eremu katolikoan, bitxia eman badezake ere, elizetan egiten ziren errogatibekin lortzen dira emaitzarik onenak. Jendarte katolikoa pasiboa zen. Arazo bat zeukatenean, Jainkoari otoitzean hasten ziren normaltasuna bueltatzeko eskatuz, eta bueltatu arte ez zioten otoitz egiteari uzten. Horri buruzko datuek balio dute jakiteko zer arazo egon zen, noiz hasi zen eta noiz amaitu, eta norainoko larritasuna izan



Barriendos, Bilbon emandako hitzaldi batean.

zuen. Informazio horri esker muturreko fenomenoak kokatu ditzakegu Historian.

Baina balio du klima, oro har, zelakoa zen jakiteko?

Hor dugu arazoa. Normaltasun egoeretan ez zen halako dokumentaziorik sortzen.

Beste nonbaitetik aterako zenuen informazioa, European azken hamahiru mendeetan zer klima xx gauza zara eta.

Historiagileek informazioa lortuz goaz, eta gero beste arlo batzuetan —botanika, geologia...— eskuratzen dutenarekin konparatzen dugu. Azken urteotan ahalegin handia egiten ari gara diziplina guztietatik lortzen dena batu eta ahalik eta argazki zehatzena osatzeko. Kontua da informazio ale guztiek bat egiten dutela. Eta atera dugun argazkian ikus dezakegu klima aldiro aldatuz doala, mende batzuk beroak dira, hurrengoak hotzak... Eta orain aldi beroan sartzen ari gara. Antzeko zerbait gertatu zen Erdi Aroan, XIII. mendera arte. Orduko propie-

tate eta salmenta-agiriengatik dakigu garai hartan mahastiak eta olibondoak zeudela Pirinioetan, goi mendian. Arazoa da sekulako lana egin behar dela halako informazioa eskuratzeko.

Noiz arte egin dezakegu atzera?

Nahikoa modu zehatzean, gertakari meteorologiko nagusiak zeintzuk izan ziren jakiteko moduan, XIV. mendera arte. Hori baino lehenago, gertakari jakinak ezagutu gabe baina bai baldintza klimatikoak oro har, IV.era arte. Badakigu Europan, IV. eta VII. mendeen artean, hotz handia egin zuela. Garai latza izan zen, glaziazio txiki bat, Europa iparraldeko herrien migrazioa eragin zuena hegoalderantz. Haiek suntsitu zuten Erromatar Inperioa. Gero, VIII. mendetik XIII.era, esan dudanez, garai beroa izan zen. Eta lasaia.

Okerrena XIV.enetik aurrera etorri zen.

Bai. Beste glaziazio txiki bat hasi zen orduan, XIX. mendearen erdira arte iraun zuena. Eta fenomeno meteorologiko larriak beteta egon zena. Mende horietako jendarteetatik asko daukagu ikasteko, haien jarrera miresgarria izan zen eta. Errealistak ziren, eta sen ona erabiltzen zuten lurraldea okupatzeko garaian. Asko pentsatzen zuten, bizilekua non ipini erabakitzeke. Naturako gertakariekin batera bizitzen zekiten, eta jarrera hori galduta dugu gaur egun.

Baina zer ikasi dezakegu haiengandik, naturaren aurrean jarrera apalagoa edukitzea ez bada? Beraiek aro hotz batean bizi ziren, eta guri beroa datorkigu.

Guri datorkiguna, ereduaren arabera, desberdina izango da. Erdi Aroko garai bero harekin ere ez du zerikusirik izango.

“Iraganean askotan ikusi dugu giza talde batek, baliabideak urritzean, bizilekua aldatzen zuela. Etorkizunerako normaltasunez onartu behar dugu aukera hori”

Orain arte aipatu dituzun zikloak ikusita, ematen du, bada, hartara itzultzea tokatzen zaigula...

Bai, klima berotzen ari da XIX. mendearen erditik. Kontua da XX. mende erdira arte edo beroketa normaltasunez ematen ari zela, eta hortik aurrera, eta 80ko hamarkadatik are

gehiago, beroketaren kurbak daukan itxura ez datorrela bat Erdi Arokoarekin. Faktore berria dago: atmosferara igozten ari garen kutsadura. Eta ereduak diote tenperaturak altuak izango direla, Erdi Arokoen antzera, baina euri-erregimena zeharo desberdina izango dela, oso irregularra, glaziazio txikiaren garaian bezala.

Batzuetan lehorteak eta besteetan uholdea?

Bai. Horrek, landareei estresa sorrazten dieten tenperatura altuekin batuta, eragin dezake paisaia pobretzea, ekosistemen “kalitatea” jaisteak, eta oso litekeena da atzeraezinezko desertizazio prozesuak hastea. Herritarren ur premia ahaztu gabe. Horrek ere estres egoera latzak sor ditzake. Arazoak egongo dira, migrazioa areagotuko da, erakunde publikoek elkarren aurka borrokatuko dute... Txarrena ez da tenperatura izango, hori jasangarria izango da. Ur falta izango da erronka.

Zer egin beharko da?

Besteak beste, neurrietako bat izango da ordaintzea, oraingo bizi-mailari eutsi nahi badiogu. Gero eta ur gutxiago daukan inguruan, pertsonako gaur egungo litro kopuru bera edukitzen jarritu nahi dugu? Ikasi beharko dugu horrek prezio bat duela. Eta ordainduz ere arazoa gainditzeko ez den lekuetan, irtenbideak zorrotzagoak izan beharko dira. Migrazioa barne. Iraganean askotan ikusi dugu giza talde batek, baliabideak urritzean, bizilekua aldatzen zuela. Normaltasunez onartu behar dugu aukera hori. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua**

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Anarkokontzientziaz



Joan den mendearen zauri handienetarikoa pentsamenduaren atarian sortutakoa izan zen, XX. mendean, alegia. José Luisen esan bezala, zientziaren eta teknologiaren aurrerabideek mundu justuago eta orekatuagoa irudikatuko zigula uste izan genuen. Baina ez da hala izan. Zuloak, lehenagokoak baino sakonagoak direla iruditzen zaizkigu. Hollywood-en bezala, amets bat saldu zitzaigun: gure etorkizunaren parte izango ginela. Gutariko bakoitzak zerikusia izango zuela munduaren norabidea marrazterakoan. Demokraziaren gaineko kontzientzia ideia halaxe ulertu genuen. Pentsamenduaren mundua ez da, ordea, abiadura berean garatu. Halaxe egin zaigu, guztioi ere, eskuragarriago baina ez, aitzitik, menperagarriago. Eta hortik, Pessoren “izateak nekatu egiten nau, sentitzeak min ematen du eta pentsatzeak hondatu” hitzen atzean dagoen sentimendu hitsa.

Utopietan sinistu genuenok, José Luis, ez daukagu ahalmenik mundua aldatzeko, ez eta Bruce Leek bezala, bizitza osoa gure buruak mundua salbatuko duen balizko borrokaldi horretarako prestatzen badugu ere. Borroka hori ez baita emango gu borrokatzeko prestatu terminoetan.

Borrokan eta lan egiteko prestatu gaituzte. Guk hala sinetsi dugu. Lanak, bihar edo etzi —edo beranduago bada ere—, bere fruituak ematen dituela eta fruituak emango dituenen, orduantxe nozitik edo jasoko dugula guk egindako lanarengatik errekonozimendua: kultur atari, ikusmira politiko, planteamendu erakargarri edo erabaki iraultzaile baten jaiotza, gutxienez. Gure aurretiko pentsamendu kritikoari oinarri zutabeak jarriko dizkiona... Baina ez da hala.

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Rozas

Eta hala ez dela ikusten dugunean, bidea ez dagoela, uste bezala, gure eskuetan, ilun galduta ibiltzearen ideiak abailtzen gaitu, eta borrokarako prest dagoenaren edo etenik gabeko lanean indargabetu denaren sufrimendua datorkigu.

Egokitze arazoa baino ez da, ordea. Dena eginda,

esanda eta asmatuta dagoela dirudien honetan, norbanakoak sekula baino ahalmen gutxiago duela senti daitekeenean, badago, Ixiarrek aipatzen zuen bezala, borronteatzeko baikortasunean kateatzeko arrazoirik. Papelean esandako eta arbela beltzetan klarion zuriz azaldutako formulak egiazkoak direla frogatzeko unea da honakoa. XX. mendeko pentsamenduak kalean funtzionatzen duen edo ez frogatzeko tenorea da, eta hor behar du borrokatu gaur egungo anarko X-ak. Taldeak osatzeko gaitasuna izan behar du, behingoz. Talde indarrak sortzeko eta sortze-lan horretan egiten ari denaren kontzientzia hartu eta zabaltzeko. Jada ez du balio ideia

jenial bat aurkezteak.

Idea edo pentsamendu jeniala arbelean zirriborratzeak. Kalean behar ditu adarrak apurtu. Eta gero eta norbanakoagoa bizi dugun gizarte honetan, hor dago zailtasuna. Hortik behar du berrikuntzak. Hori, XXI. mendean garai- pen ikur.

XX. mendeko pen-

tsalariaren talaia kontenplaziozkoa izan da. Eta kontenplaziozko mira horretatik banakako lan esker gara egin du jauzi. Hori izan da bere borroka leku. Mende berrirako erronka, talaia eta bakarkako lanak egiteari utzi eta landu nahi diren ideien gaineko kontzientzia taldean eta kalean lantzearena da. Pentsamendua sortuko duen talde kontzientzia garatzea, “esperientzia baikor kolektiboak” bizitzera gonbidatuko duena, alegia. ■



Jada ez du balio ideia jenial bat aurkezteak.

Idea edo pentsamendu jeniala arbelean zirriborratzeak.

Kalean behar ditu adarrak apurtu



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Txekiara joan eta Brno-ko herensugea jan

Laura Mintegi eta biok Txekiara gonbidatu gintuen Ainara Maiak, Euskara eta Euskal Kultura Brno-n eta Olomouc-en erakusten duen irakasleak, euskal literaturaz hitz egin genezan. Bidaia kuriooa zen, joan-etorria eta hango egoitza geuk ordaindu behar baikegintuen. Gero Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak hegaldia osorik ordaindu digu. Orain, espero dezagun hango gastuen kargu ere egitea. Han, Unibertsitateko Errektoretzan ostatu hartu genuen, horretarako prestatutako gela batzuetan. Apirilaren zazpian izan ziren lehen bi hitzaldiak: *Euskal Literatura XX. eta XXI. mendean* Laura Mintegirena; *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren bilakaera* Iñaki Zubeldiarena. Brno-ko Masarykova Unibertsitatea izen handikoa da, bertara Txekiatik eta Eslovakiatik ikasle asko joaten baita. Eta Letren Fakultatean Hizkuntza Erromanikoek indar handia dute, besteak beste frantsesa, italiera, portugesa, gaztelania eta katalana erakusten baitira, eta horiekin batera euskara.

Bi hitzaldietan honako unibertsitate irakasleak izan genituen entzule: Daniel Vazquez, Athena Alchazidu eta Pavlina Svandova eta Ainara Maiaren ikasleak ere bai. Ondoren, Hizkuntza Erromanikoen zuzendari den Petr Kyslousek irakasleak harrera ezin hobea egin



DANI BLANCO

«
Entzun genuenean *Brno drak* janari
bikaina zela, ez genuen zalantzarik
izan, haur literaturaz hitz egin
ondoren, herensuge bat janez
bukatzeari baino gauza egokiagorik
ez baitago
»

zigun bere bulegoan. Gero, bazkaltzeko ordua iritsi zen eta Pavlina Svandova eta Ainara Maia izan genituen “cicerone”. Hiriko jatetxe berezi batera eramanez gintuzten eta han karta ezin ulertu. Orduan Pavlinak, bere pazientzia amaiezina erakutsiz, hainbat proposamen egin zizkigun. Eta entzun genuenean *Brno drak* (Brno-ko herensugea) janari bikaina zela, ez genuen zalantzarik izan, haur literaturaz hitz egin ondoren, herensuge bat janez bukatzea baino gauza egokiagorik ez baitago. Eta horixe egin genuen: Brno-ko herensugea jan. Esan behar da plater berezi hori txerri txuleta lodi samarra dela, patata puska egosi-frijituz hornitua, pipermin luzea platerean alderik alde, barruan herensugearen sua duela-rik.

Olomouc-eko Unibertsitatean, gazte jende ugari bildu zen hitzaldira eta Eduard Krc irakaslea ere bai. Espainiako kulturaz gain Euskal Herrikoa ere ezagutzen dute eta begirune handiko jendea da eta oso amultsua. Etxean bezalaxe sentiarazten zaituzte.

Ilunabarrean, Ainara Maiak euskaraz eta Pavlinak eta beste hiru ikaslek txekieraz poesia errezitaldi hunkigarria eman zuten. Olerkiak Ainarenak ziren, Pavlinak txekierara itzulita. Ilunabar atseginarenean eta Txekiako egonaldi gozoaren oroimena ez zaigu berehala ezabatuko. ■

TXANDAN

Joseba Barandiaran



Izen-abizenak eta izana bat etortzea ez da hain arrunta. *Euskaldunon Egunkaria*z harago, hori darabilt buruan, azken egunetan Amado Francoren berri izan nuenetik.

Deustun ikasitako gizona, Espainiako Ibercaga aurrezki kutxaren egungo presidentea da. 1945ean jaio zen Zaragozan, eta haren gurasoek pozez hartu zuten haur jaio berria mutila izatea; neska jaio balitz ere, Amada izena jarriko ziotkeen: “Amada” esateko, noski.

Gizona ezagutu gabe ere, egingo nuke izen-abize-

Izenaren habe

nak izanarekin bat etor daitezen lortu duela; zaila ere ez zioten jarri.

Baina Bizkaian bada beste adibide bat, korrikalarien artean aski ezaguna: Fortunato Vencedor du grazia eta espiritu olinpikoaren garaile jo daiteke gizona. 80 urte pasa dituela, uda zein negu, aste-buruz asteburu dabil Bilbo eta inguruetakoa —mundu osoko, beraz— lasterketetan. Omenaldiak ere egiten dizkiote, noski.

Bada izana izen-abizenen habe izateaz gain, esker-tzen diot bere ilobarik Amadorenekin ez ezkontzea; zer izan ere. ■

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Apustua

Ezin dut ukatu. Azken hogeitaka urte hauetan herri kirolen inguruan astakeria ikaragarriak ikusi ditut. Ikusi dut kirolaria bromhexina, *Bisolvon* hain zuzen ere, poto osoa trago bakar batean hartzen txapelketa-ko finalerako hiru egun faltan katarro alu hark irabazle izateko aukera ken ez ziezaion. Edo inbututik idiei zentraminak eta patarra sartzen plazara atera aurretik, aurrekoen markak tapatzeak hori eta gehiago merezi duelakoan.

Baina orokorrean, behar adina akaso ez, herri kirolean dabilen kirolariaren bere gorputzarekiko kontzientzia asko aldatu dela esan beharra dago. Dagoeneko ez da harrigarria berriketan hasita pultso-metroak, esfortzu probak, analitikoak eta abar ateratzea. Belaunaldi berriak ideia eta ikuspegi berriak ekarri ditu nahiz eta oraindik baden Darwini arrazoiak kendu nahi dion hainbat astapotro.

Normala denez, alderik handiena lehengoan eta oraingoan artean dago. Baba handiak eta txuletak lekua utzi diote karbono hidrato eta abarrei, asko entrenatzeak ondo entrenatzeari tokia utzi dion bezala. Kirolarien osasun kontrola ohiko bihurtzen ari da herri kirolean ere, oraindik ezusteko tamalgarriak gertatzen diren arren. Lehengoetan berriztatzaileena zen Jose Mari Mendizabal. Diote –eta “diote” diot ni neu bertan izan ez nintzelako–, 1983an Miel Mindegiauren aurkako apustu erraldoi



DANI BLANCO

hura egin zuenean edan zuen ura hotzagoa zegoela proba hasieran eta epelagoa probak aurrera egin ahala, gorputzaren beroak eta ur hotzak elkarren aurka talka egin ez zezaten kirolariaren egoera fisikoa kaltetuz.

Azkena bere etxean Jose Mari Olasagastiren aurkako apustua baino zortzi-hamar bat egun lehenago izan nintzen. Kontatu zidan plazan egin beharreko lana –zutik jarritako lau kanako erdibitzea– etxean egin berri zuela, Astorki sendagi-learn aholkupean kardio-entzefalograma eta esfortzu probak egin zituela eta primeran zebilela gainditu zuelako erorketa baten ondorioz izan zuen belauneko lesioa. Elkarri agur esan aurretik prestakuntzari buruz aritu ginen lagunarte ederrean eta neure aurrean gogoratu zion Juanita emazteari, artean astebete luze falta bazen ere, etxeko erloju guztietan ordua aldatu behar zutela apustu bezpe-

ran aldaketa ofizialaren zain egoteke gorputza ohitzea komeni zelako. Lehiaketaren estresa da, gainontzeko kirolari denek bezala, kontrolatzerik ez zuen bakarra. Halakoxea zen.

Nik galbahea pasatu nahi diot gero plazan gertatuari. Derrigorrezkoa deritzot gertatu denari begietara begiratzeko. Zirrikietan behera joan daitezela zalantzak eta oroitzapen tristetak. Gera daitezela gainaldean kirolari eta pertsona on baten hitzak eta ekintzak.


Galbahearen pisuari heltzea ez da lan erraza izango. ■

**Nik galbahea pasatu nahi diot
plazan gertatuari.**

**Derrigorrezkoa deritzot gertatu
denari begietara begiratzeko**

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Laurogeita hamazortzi urteko emakume alemaniarra zendu da. Ez nuen ezagutzen lagun batek bere heriotzaren berri eman didan arte. Bigarren Munduko Gerran, alemaniarra izanik, juduen alde egin zuen, Varsoviako ghettoan aditu legez estolderiaren ardura lortu zuenean. Horrela, nazien planak ezagutzeko aukeran zegoenez, bere erreminten artean haurrak ghettoetik atera eta esku onetan uzten zituen. Kozkortuagoak ateratzeko sistema propioa erabiltzen zuen, erreminta kaxa azpian marras zakuan sartu eta kamionetan eramaten zituen. Zakur bat bazuen ongi erakutsita, eta naziak ikusi orduko

Irena Sendler

zaunka hasten omen zen, haurren negarren entzungor. Lagunen informazioaren arabera bi mila bostehun haur salbatu omen zituen. Naziek harrapatuta, hankak eta besoak hautsi omen zituen. Irenak haur guztien izenak eta dokumentuak omen zituen, ederki gordeta bere etxeko atariko arbolpeko zulo batean. Gerra bukatu-eta, haien gurasoak aurkitzen saiatu zen, baina gehienetan naziek gaseatuta erailak izan zirela jakin zuen. Nobel Sarirako proposatua izan omen zen, Al Gorek eta Obamak aurrea hartu zioten. Argazkia ere bidali dit lagunak, begiradaz, irribarreaz eta orrazkeraz gure amonena izan litekeena. Ezer gutxi ezagutzen dugu. ■

BERTSO BERRIAK

Aitor Allaistur

31



DANI BLANCO

I

Denboraren arrastoa nabarmentzen da bisaian, azalaren zimurretan, begiradaren lasaian, baskula baten gainean, *after shave*aren usaian, kolesterolaren erruz mamiarik gabeko mahaian, ilearen erorketak soildu ohi duen sabaian, sekula desagertzen ez den umore txar jarraian... Denok helduago izan nahi dugu gazte garaian, baina heltzen garenean gabiltza gaztetu nahian.

II

Alkoholaren ekoizpena krisian dago benetan ebaki deskafeinatu bat hartzen dugun uneetan. Ezezagun bilakatu gara ia tabernetan, terrazetan baikabiltza gai serioez hizketan: hil bukaeran burua hileroko hipotekan, alabaren biberioan, semearen pardeletan... Kalera irteten gara igande eguerdietan, nerabetan etxeratu ohi ginen ordu beretan.

III

Euriborra “frak”-arekin ibiltzen da ate joka, tamalez Iberdrolari ez zaio asko inporta; Euskaltel eta Naturgas ere daude gure kontra eta propina gisara bizilagunen kuota. Etxeko ekonomiak jasaten badu porrota, gutxiago jan behar da eta jatekotan zopa... Den lapurrik handiena bilakatu da Europa, askoz pezeta gehiago osten delako euroka.

IV

Etxea ere tarteka garbitu behar da noski, gutxiago zikintzea ez baita izaten aski... Batzutan behar da *Pronto*, besteetan *KH-7*; *Don Limpiok* txukun uzten du lehen zegoena hain gaizki; *Vileda* lehortu asmoz etengabe ohi da busti, *Tenn* ere ez da tentela, bioalkohol eta guzti... Txoko ezkutuenetan ibiltzen denez espreski, zikinkeriak etxeko sekretu denak dakizki.


V

Bulegoko tertulien oinarria da baloia: “Athletic?”, “Ondo...”, “Reala?”, “Berriz jaso du jipoia...”. Gero hasten da Bill Gatesek ezarritako patroia: ordenagailua piztu, klikatu ezker botoia. Windowsak abiarazten du lanaren maratonia: zortzi orduz arrastaka pertsona ta arratoia! Monotoniari eman behar zaio arrazoia, ezagunegia baita eguneroko gidoia.

VI

Teknologikoki bizi dugu aro digitala, Googlea bihurtu zaigu denon etxeko portala, mugikorra dugu falta zitzaigun gorputz-atala, GPSa daramagu, berak gu garamatzala. E-mailak ugaldtu dira, SMSak bezala, mundu txiki bat bihurtuz lehen zena mundu zabala. Baina tamalez ez al da gure gizarte globala bakardade ugariren konexio birtuala?

DOINUA: “Habanera”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaisia

Literatura

«Miserable portatzen ari dira Euskal Herriko egoeraz iritzirik ematen ez duten intelektualak»

Euria etxabotaka Donostiako eguerdian, baina Raul Zelik-ek (Munich, 1968), argazki saioan ez du irribarrerik galtzen. *Lagun armatua* nobelaz (Txalaparta, 2009) hitz egitera etorri da Donostiara. Bi elkarriketa egin dizkiote goizean –“lau bat aldiz sartu ahal izan dut ‘salbuespen egoera’ esapidea”– eta lagunartean bazkaldu ondoren paratu da gure galderen aurrean.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

Lagun armatuari buruzko gaurko [apirilak 22] tertuliarako itaun batzuk prestatu zenituen. Aurrenekoak zioen: “Nola hitz egin mintza debekua dagoenean?”. Kosta egiten zaigu euskal gatazkaz jardutea?

Badaude galarazitako lurraldeak: nobelarekin lanean hasi gabe nengoela, Bernardo Atxaga elkarriketatu nuen eta Alemaniako bi egunkarik elkarriketa hori eskatua zidaten arren,

gero ez zidaten argitaratu, Espainiaren jarrearekin kritikoegia zelako. Orduan konturatu nintzen informazioaren blokeoak ez duela Espainiako Estatuan bakarrik funtzionatzen, Europa osoan baizik. Behar handia sentitzen nuen euskal gatazkari buruzko nobela bat idazteko, blokeo handia dagoelako. Horregatik ez da liburuan Euskal Herria zuzenean aipatzen, nahiz eta argi dagoen Euskal Herria



Raul Zelik

dela; eta ez da erakundearen izenik aipatzen, ezta hiriak ere. Errealitatearekin lotzen duen aingura bakarra literatura da, hori da modu bakarra euste-hormaren gainetik pasatzeko.

Horri gehitu behar zaio, badaudela derri-gorrezko zenbait termino, edo baita debekatutako beste batzuk ere. Oso adibide sinplista ematearren: nola deitzen diegu ETako militantei? Exigitzen digute terroristak direla esateko eta hori auzitan jartzen dugu. Baina ez nau konbentzitzen askatasunaren aldeko borrokalariak direla esateak ere. Beraz, termino bat erabiltzeagatik diskurtso baten barruan kokatzen zara; eta berez, baliteke gure posturak konplexuagoak izatea. Zentzu horretan, badaude debekatutako hizkuntzak.



Idazterakoan horrek arazoak ekarri dizkizu?

Protagonista, Alex, ia nobela osoan postura propioa hartu nahian dabil, bere etikarekin bat datorrena, baina Zubieta erakundeko militantearen arrazoiak ere kontuan hartzen ditu. Termino egokiak erabiltzeko borroka da, bestelako gizartearen aldeko borroka badelako hitz egokiak erabiltzen saiatzea ere.

Plazaratu zenuen bigarren galderak honela zioen: “Ez al dira Euskal Herriko diskurtso identitarioak azken finean erreakzionarioak?”. Hala dela uste duzu?

Transexualen mugimenduekin azken hamar urteetan ikasi ahal izan dugun zerbait da, giza-identitateak eraikuntzak direla. Ez “gara”. Geure burua “egiten dugu”. Horregatik ez zait gustatzen *Gara* egunkariaren izena. Baina, dena dela, ezkerreko euskal abertzaletasuna, nire ustez, beti egon da irekita jendea biltzeko eta bere burua transformatzeko. Ez du orain dela 100 urteko gizartea defenditzen, eta zabalik dago jendeak identitate berriak eraiki ditzan. Nobelan saiatu naiz bi diskurtso horien –identitarioa eta post-identitarioa– talka eragiten. Alexek zalantza asko ditu, baina pertsonaia horretan positiboa gertatzen zait dena kuestionatzen duela. Alaba dauka emakume batekin, baina gizon batekin dabil... genero eta sexu rolak zalantzan jartzen ditu. Erakusten du gauzak transformatzen direla pertsonok nahi dugunaren arabera. Pertsonen emantzipazioa eta emantzipazio soziala, nor garen berriz deskubritzeko gai izatea ere bada. Diskurtso identitario bat, hasten denean esaten existitzen den identitate bat babestu behar dela, erreakzionario bihurtzen da, horren baitan ez daudenak baztertzen dituelako.

Euskal abertzaletasuna ez da oso adibide tipikoa, diskurtso identitarioa hor egon arren, praktika trans-identitarioa eduki duelako. Identitate sozial, kultural eta sexuarekin ez da baztertzaileria izan. Baina arriskua hor dago eta liburuan islatu nahi nuen. Zalantza daukat Euskal Herria, bere horretan, existitzen ote den: momentu honetan, eraikuntza baten fruitua da, hizkuntzarena. Eraikuntza zaharra, egia da, baina egunero berri eta berrasmutzen ari dena. Euskal Herria ez da existitzen izatez, proiektu horretan parte hartzen duten pertsonen osatzen dute.

Hirugarrena: “Zer egiten dugu gure ezintasunaren aurrean?”. Kolonbiako *Semana* agerkarian esan zenuen, Hego Amerikaz hizketan, idaztea bazela modu bat zerbait egiteko errealitateak eragiten duen ezinaren aurrean. Euskal Herriaz gauza bera esango zenuke?

Antzekoak dira. Idaztea, niretzat behintzat, adierazteko modua da. Sentimenduak adierazteak badu zerikusia ezintasunarekin, ahotsa jaso beharrenekin. Amorruek ematen dit injustiziak ikusezin bihurtzen dituztenean. Euskal Herriaren eta Kolonbiaren egoerak oso diferenteak dira, baina alde horretatik nire esperientzia antzekoa izan da. Hemen torturatuekin eta errepresaliatuekin gertatzen dena... eta ezin dute salatu ere egin, kriminalizatu egiten dituztelako.

Eta horren aurrean literaturak zer egin dezake?

Ez dut uste literaturak misio bat duenik. Ez dut Jean-Paul Sartrearen literatura *engagé*

horretan sinesten; baina, era berean, uste dut literaturak eskubide osoa duela iritzi politikoak emateko. Literatura bada ona edo txarra posturak hartzen dituelako. Izan daitezke postura estetikoak, baina baita edukiarekin lotura dutenak ere. Absurdua iruditzen zait Europan demokrazia hitz egitea eta Europar Batasuneko intelektualak ez izatea gai Euskal Herriko salbuespen egoeraz esaldi bakar bat ere esateko. Lotsagarrikeria da, intelektual guztien aldetik. Batez ere Espainiako Estatukoaren eta Frantziakoaren aldetik, gertuen horiek daudelako, eta gertatzen ari dena jakin behar dutelako.

Baina baita intelektual alemaniarren aldetik ere. Idazle modura ez daude derrigortuta horri buruz liburu bat idaztera, baina intelektualak diren neurrian, informatuta egon behar ko lukete eta iritzia eman. Eta iritzirik ematen ez dutenak, niretzat, modu miserablean portatzen ari dira.

Lagun armatuak harrera hobia izan zuen Alemaniako hedabide kontserbadoreetan, nolabait aurrerakoi direnekin konparatuta. Nola ulertzen da hori?

Galdera izango litzateke, zer motatako aurreakoiak diren horiek, ezta? *Süddeutsche Zeitung* egunkaria asko identifikatzen da herrialdearekin, eta beraiek, baita *Taz* [*Die Tageszeitung*] egunkari alternatiboak ere, kritika politikoa egin zioten gehienbat. Esan zuten ETArengandik modu esplizituan distantzia hartzea falta zitzaioela, beraiek "terrorismo" esaten dioten horretatik. Agerkari alternatiboetan ere, terrorismoaren apologia dela esan zuten. Absurdua iruditzen zait, Alex borroka armatuaren kontra baitago. Eta prentsa kontserbadorean harrera hobia izatea kasualitatea izan liteke. Baliteke momentu hartan ez sentitu izana hainbesteko beharra distantzia hartzen dutela adierazteko.

"Euskal Herria ez da existitzen izatez, proiektu horretan parte hartzen duten pertsonen osatzen dute"

Alde horretatik, oso irakurri diferentea izan dezake liburuak euskal publikoarentzat. Irudipena daukat narratzaileak aferarekiko daukan distantziari esker askotan atzamarra sartzen duela leku mingarrietan. Alexek Zubietarekin dituen elkarriketetan ere hori nabaritu dut, berbarako.

Zubietarekin protagonistak dituen eztabaidak, niretzat, benetako eztabaidak izan dira. Hego Amerikan egon izan naizenean ezagutu ditut atzerrira joandako euskal herritarrak, ETArekin politikaren alde daudenak, gaur egun ere. Haiekin izan ditudan eztabaidak dira, gutxi gorabehera; eta posible zen haiekin eztabaidatzea. Batzuetan harritu egiten naiz ikusita zein gutxi eztabaidatu den ezker abertzalean azertuez eta huts egiteez. Denok dakigu akatsak izan direla, mundu guztiaren kalterako: biktimak, militanteak eurak...

Eta akats horiek, batzuetan barikaezinak, ez dute eragozten presoekiko elkartasuna, edo errefuxiatuekikoa. Baina hemen eztabaidak zabaldu direnean, hausturak etorri dira. Alex ez dut horrela ikusten, bera ez da iristen hausturara. Berak dio onartu behar dela ETArekin sorrera egoera historiko baten fruitu izan zela, eta beharbada demokrazia ez zela iritsiko 77-78 inguru horretan ETA egon izan ez balitz. Frankismoa beste hamar urte luzatuko zen. Eta ez dezagun ahaztu torturatzailerik askok beren lanetan jarraitu zutela; ETA izan zela zigorrak eskatu zituen bakarra. ETAk euskal gizartea mugitu du, eskubideak aldarrikatzeko. Bestela, euskal gizartea asimilatuta legoke askoz modu bortitzagoan; hizkuntza bera ere askoz egoera okerragoan legoke, ETArekin jarrera hain antagonikoa izan ez balitz. Badakit minaz jositako lurraldea dela, debekatua daukagula horrelako gauzak esatea. Baina orain dela hamar urte egin ahaliko genuen. Ezker abertzaleak berak esan zitzakeen gauza hauek argitasunez, errepresioa ez zegoelako hain zabaldua. Eta pixka bat

**gametxo
HOTELA**



Gametxo Auzoa • Ibarrangelu, Bizkaia • Tel.: 94 627 77 10 • www.hotelgametxo.com

tristeia da garai haietan ezker abertzaleak gutxiago eztabaidatu izana. Uste dut beti egon dela beldur bat: edozein iritzi disidente etsaiak aprobeitxatuko duela pentsatu izan da. Baina nire ustez etsaiari gehiegizko beldurra izatea da hori.

Alex gaztetan ere Euskal Herrian egondakoa da, eta orain badirudi momentu post-utopiko batean iritsi dela. Zer esanahi dauka, alde horretatik, Zubietarekin egiten duen bidaia?

Nobela laguntasunari buruzko *road movie* bat dela uste dut. Gatazka bera baino garrantzitsuagoa da niretzat Alexen eta Zubietaren arteko harremana. Eta Alexen ezintasuna dago, ahul dagoen norbait [Zubietari gaixotu egiten da bidaian] zaintzeko: ezintasun bera dauka alabarekin eta Zubietarekin. Istorio nagusia hori da, nola elkartasuna bezalako zerbait, hain handi eta abstraktua, oso konkretu bihurtzen den: norbait zaintzea, nora jo ez daukalako, ezin duelako ospitalera joan.

Aurkitzen duen Euskal Herriari buruz, esango nuke badela modu bat narratzeko nola garatu den hemen derrigorrezko asimilazio prozesu europarra. Proiektu europarra ez da, esaten diguten moduan, kulturak batzeko sortu: kapitalaren proiektua da, espazio bat sortzea kapitalak eta salgaiak libre ibil daitezkeen. Alde horretatik, 80ko hamarkadarekin alderatzea interesgarria da, eta neurri batean tristeia. Ze, noski, 80ko hamarkadan ere hau gizarte kapitalista zen, esplotazio handia zegoen, baina euskal gizarteak eta puntu bateraino Espainiakoak aurkitu zituzten bideak inposizio horri aurre egiteko. Asimilazio europarra-ekin bukatu zen aberastasun sozial hori. Eta hori ikusten da eguneroko gauzetan: liburuan hitz egiten da masa-turismoaz, espazio berde guztiak espekulazio-objektu bihurtzeaz...

Juanjo Olasagarrek liburu hau Hernanin aurkeztu zenean, zera esan zuen: Zubietari eta Alexen artean, zuk aipatutako elkartasunaz gain, antzematen zuela erakarpeneren sexual ezkutu bat ere. Zer iruditzen?

Nobela planteatu nuenean ideia horrekin jostatu nuen, erakarpeneren hori probokatzearekin, baina ez dut uste publikatu den moduan horrela denik. Alex, gainera, ez da oso sinesgarria pertsonaia homosexual modura. Alemaniaren irakurle batzuek kritikatu naute alde horretatik, esanez pertsonaia oso eraikita geratzen dela. Baneukan irakurle probokatze-ko asmoa, zalantza horretan eror zedin, elkartasunaren motiboak zalantzan jar zitzaizkion. Baina nire ustez Alexen motibazio nagusia katarsi moduko bat egitea da, Zubietarekin gai baita zerbait egiteko, alabarekin egin ezin duena: ahul dagoenaz arduratzea.

"Lagun armatuak istorio nagusia hori da, nola elkartasuna bezalako zerbait, hain handi eta abstraktua, oso konkretu bihurtzen den: norbait zaintzea, nora jo ez daukalako, ezin duelako ospitalera joan".



Zubietari Mikel Antzaren trasuntua da. Nola uste duzu hartu duela berak pertsonaia bihurtze hori?

Tira, pertsonaia hori Hego Amerikan ezagutu nuen pertsona batean oinarritu nuen. Haren izaeraren elementu asko daude Zubietan. Ez dakit Mikel Antza nolakoa den, baina, hasieran esan dudana moduan, aingura bota nahi nuen: ezin nuen izenik aipatu, eta era berean, errealitatean ainguratu nahi nituen istorioa eta pertsonaia. Eta hori, niretzat, literatura da; literatura errespetatzea. Joseba Sarrionandiaren historia, haren liburuak, motibo handi dira niretzat idazteko. Nobela hau argitaratu zenean *Lagun izoztua* itzultzen ari nintzen alemanera Petra Elserrekin, eta ideia ona iruditu zitzaizkidan Sarrionandiaren historia nire nobelan sartzea, irakurleari ulergarriago egiteko zerk eraman dezakeen pertsona bat ETAn sartzea. Mikel Antza momentu hartan atxilotu berri zuten, eta niretzat beti izan da modu bat esplikatze-ko jendeak elkartasunagatik egiten duela. Ze, Mikel Antza ez zen oso ezker abertzaleko militantea: Sarriren pertsonarekiko sentitzen zuen errespetuagatik eman zuen pausoa. Eta jende askok egin du gauza bera. Pertsonaia ez da Mikel Antza, baina bada Mikel Antzaren historia, neurri batean. Ez dakit berak nola hartuko zuen; bera ezagutzen dutenentzat agian errespetu falta izan da, baina nire helburua zen istorio erromantiko hori kontatzea, idazten duten bi pertsonaren arteko laguntasunarena. Eta gero bizitza errealarekin osatzea. ■

argia.com Euskal Herriko egoeraz, literaturaz... luze eta zabal aritu ginen Raul Zelikekin. Sarean duzu elkarrizketaren bertsio luzea.

Musika

Quemequemé jaialdia

Iruñea aldeko musikaren garrak piztuta jarrai dezan

Joan den urteko azaroaren 16an lau hormen artean bizitza handia zuen Aizoaingo (Nafarroa) baserri batek sua hartu zuen eta ia erabat kiskaldu zen. Hainbat musika taldek entsegu lokalak zituzten bertan, eta Iruñeko soinu teknikari ezagun batek ekipo guztia gordetzen zuen. Taldeek instrumentuak galdu zituzten; soinu teknikariak, ekipoa. Beraien eguneroko erremintak. Eta, funtsean, dirutza. Gainera, baserria bota egin dute.

IKER BARANDIARAN

SUAK baserriaren bi heren erre zituen sasoian, honako musika taldeek entseatzeko zuten bertan: Antigua y Barbuda, Electric Riders, Astrovandals, Hoey & The Mussels, Jon Ulecia y Cantina Bizarro, Black Lagun eta Lex Misterio. Talde horiek eta soinu teknikariak 30.000 eurotik gora galdu zituzten.

Musikariak, atsekabetuta, galdutakoa berreskuratzeko hainbat ekimen aurrera eramatea erabaki zuten, hoberen egiten dakitenarekin; musika joaz. Hala, abenduaren 18an lokal horietako taldeak Totem aretoko agertokira igo eta elkartasun kontzertua egin zuten. Baina, zoritxarrez, elurte handia bota zuen eta ez zituzten aurreikuspenak bete.

Musikari ezagunen elkartasuna

Orain, berriz, hainbat musika talde handi batu eta apirilaren 30ean elkartasun kontzertu erraldoia egingo dute Atarrabiako kiroldegian, 20:00etatik aurrera. Barricada, Lendakaris Muertos, Bizardunak, Governors, Los Zopilotes Txirriaos –lehengo Impekables– eta Ze Esatek arituko dira.

Baina zein lokal dira, erre ziren horiek? Goazen urte batzuk atzera: 1990eko hamarkada hasieran Tijuana In Blue taldeko Montxo Aizoaingo baserri batera bizitzera joan zen. Han Iruñeko zenbait taldek entseatzeko lekua hartu zuen: Mierdosos, Impresentables, Tijuana In Blue, Bajo Cero, Dekadencia, The Dos In Blue... Gerora, Phil eta JC ingelesek baserrian lur hartu zuten, eta Montxorekin batera ondoko baserria ere berenganatu,

QUEMEQUEMÉ FESTIVAL!!!

LENDAKARIS MUERTOS +

BARRICADA +

ZE ESATEK +

LOS ZOPILOTES +

TXIRRIAOS EX-IMPEKABLES Y HUAJALOTES

GOVERNORS +

BIZARDUNAK

Pol. Hermanos Indurain Villava/Atarrabia


viernes ostirala 30 Abril

19.30 ateak apertura **20.00-02.00** Concierto Kontzertua

8€ vecinos de Villava (en la Casa de Cultura) Atarrabiako bizilagunentzat (Kultur Etxean)

10€ aurretik anticipada **15€** bertan taquilla

Villava/Atarrabia: Basajaun, Begobego
Iruñea: Herriko Alde Zaharra, Tai Tattoo, Mesón Nabarrería, El Infiernito Guitar Shop.
Burlata: Amalur, Black Rose
Txantrea: Akelarre Donibane: Toki Eder
Barañain: Akelamendi,



Desastrearen irudiak: Aizoaingo baserria erre ondoren kamera txiki batekin hartutako argazkiak dituzu ondoko bi hauek. Suak jan zituen musikarien instrumentuak, soinu ekipoak, baina, batez ere, etxe horren barruan izandako milaka bizipen. Han entseatzen zuten taldeek apirilaren 30ean antolatu duten kontzertuarekin galera ekonomikoa konpondu nahi dute. Bestea, ordea, ez da hain erraz konponduko.

musika-etxe bat egiteko asmotan. “Grabazio estudio bat, tailer bat eta entsegu lokala egitea erabaki genuen, eta lanean jarri ginen”, gogoan dauka Montxok.

Bigarren baserriko lokalak prest izan zituztenean, Mermaid taldea sartu zen, eta haren atzetik So Blind eta beste batzuk. “90eko hamarkada erdialdean hasi ginen Mermaid taldearekin eta Iruñean entseatzeko lokalak eskasak eta garestiak ziren.

Kontzertuetan JC ezagutu genuen eta galdetu genion ea Aizoaingen entseatzeko aukerarik ote genuen”, azaldu du taldeko Iñigo Firehead-ek.

Txikia zen baserria, baina poliki-poliki lau lokalak goraino bete ziren eta egunez beti zegoen soinua teilatupean. Mermaid taldekoek uda osoak pasa zituzten barruan, ia irten gabe. “Uda batean, bigarren diskorako abestiak konposatzen buru-belarri genbiltzala, bazkaldu eta afaldu ere han egiten genuen, irten gabe”.

Mota askotako talde esanguratsuak

“Gogoan daukat talde askok baserri hartan entseatu nahi zutela, baina lokaletan lekua hartzeko ezinbesteko baldintza zen JC edo Montxo ezagutzea, edo ordurako bertan geunden taldeok musikari horien gaineko

Baserria oso ezaguna egin zen Iruñean. Hiriburuko musikari gehienak inoiz handik pasa dira

erreferentzia onak ematea; hala sartzen ziren berriak. Eta, sasoi batean, ia ez zen etenaldirik egoten egun osoan. Bestalde, rocka oso endogamikoa da, badakizu, eta taldeak biderkatu egiten ziren”, gogoan dauka Iñigok, nostalgia puntu batekin. “Giroa oso berezia zen, musika taldeetakoak, Montxok eta JC-k elkarri laguntzen genion edozer gauzatan; Iruñean ez zegoen halakorik beste inon”.

Montxok dioenez oso ezagunak egin ziren baserriko lokalak hiriburuan, jende asko handik pasatzen zelako. “Nik esango nuke Iruñean egon diren musikari guztiak inoiz Aizoaingo baserritik pasa direla: hartu-eman eta mugimendu handia zegoen eta asko pasatzen ziren ekipo bila, lokaletan inprobisazioak egitera edo elkar ikustera”.

Hoey & The Mussels taldeko Karlek gaineratu du, lokal horietan aritutako taldeek Espainiako estatuan ospea lortu dutela. “Pasa direnen izenak ikustea besterik ez dago”. Tonino Carotone moduko musikari glamorosoak handik irten ziren, baina askoz jende gehiago ere pasa zen, alboko orrialdeko koa droan azaltzen diren izenak, besteak beste.

Taldeen artean batasun eta elkartasun handia zegoen, eta kontzertuak egitea eta gauez entseatzeko debekatuta zuten arren —inguruan

Aizoango baserrian entseatzen zuten zenbait talde



Green Manalishi.



Hoey & The Mussels.



Lex Misterio.

- Tonino Carotone
- Mermaid
- Basque Country Pharaons
- So Blind
- Green Manalishi
- Las Culebras
- Hoey & The Mussels
- Los Cupras
- Royal Canal
- Antigua y Barbuda
- Astrovandals
- Escuadron Buck Dharma
- Black Lagun
- Jon Ulecia y Cantina Bizarro
- Electric Riders
- Lex Misterio
- Gritos de Histeria
- Dead Flowers
- Los Huajolotes...



Las Culebras



Astrovandals



Jon Ulecia y Cantina Bizarro.

etxeak daude; behin Mermaid-ekoek egin zuten proba, JCren atsekaberako—, beste hainbat herritan lokaletako taldeek elkarrekin kontzertuak egin zituzten, elkarrekin bizi zuten giro onaren erakusgarri.

Grabazio estudioa

Ordurako, lehenengo baserria bizileku zuten, baina bigarrenean ekimena etengabekoa zen eta El Perro Ingles estudioan ere hainbat grabazio egin zituzten. Mermaid taldearen disko gehienak JCK han errejistratu zituen, baita honako beste hauen lanak ere: Glitter Souls, Los Brillantinas, Jugos Lixiviados, Los Cupras, Decadencia, Dead Flowers, Insopordables, Los Mierdosos, So Blind eta Beaux Degats, besteak beste. “Oso estudio sinplea

zen, baliabide gutxi zituen, baina JCK ahalegin handia egiten zuen eta doinu gordin berezia lortzen zuen; oso gustuko genuen”, azaldu du Inigo Firehead nekaezinak.

Aizoango lokaletatik pasa ziren talde askok bizirik jarraitzen dute oraindik, eta bukatu ziren proiektuetan ibilitakoek beste talde batzuk ere sortu dituzte gerora, baina baserri horren erabiltzaileen ustetan dagoe-neko ez da gauza bera izango. “Taldea horiek ez daude geldi, eta nonbait entseatzen jarraitzen dute, baina guztiok etxe berean ez ego-teak, JCren inguruan biltzen zen multzo hori apurtu izanak, baldintzatu du beste talde berri asko ez irten izana. Hori izugarrizko galera da”, azaldu du penaz Hoey & The Mussels taldeko Karlek. ■

Liburuak

KRITIKA

Hamazazpikotan.
Karlos Linazasoro.
Elkar.
96 orrialde. 13 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Bost, zazpi, bost

BOST, ZAZPI, BOST. Hamazazpi silabako piezetan ondu du Karlos Linazasorok, poema konprimituen eta aforismoen espezialistak, azken liburua. *Hamazazpikotan* tolosarraren beste jolas literario bat da, naturaren handitasunetik gure saihetsetan kaiolaturik dagoen bihotzaren bazter txikienera eroan gura gaituena, hiru lerroko poemen bidez. Hamazazpi silabena, noski, joko bat da, eta fikzio bat, era berean. Japoniako tradizioan haikuek hiru lerro dituzte, bost, zazpi eta bost morakoak. Mora “pisu silabikoa” neurtzen duen unitatea da, silaba osatzen duten segmentu fonologikoena. Hizkuntza batzuetan silaba eta mora bat dira funtsean, baina ez japonieraz. Hala bada, haiku puruek hamazazpi mora dituzte—silaba baino behezagoko mailako hamazazpi zati—, eta ez hamazazpi silaba. Beraz hau ez litzateke inoiz izango haiku bat, are gutxiago Kiotoko lorategietan: “Eguzki eta elur./ Martxoak bi aho ditu,/ azal eta hezur”.

Linazasororen ekarpena da, oster, haikuak berrirakurtzearena, eta bertsolaritzari egiten zaizkion keinuena. Berriztatze horretan sartzen ditut nik elementu pertsonalen aipamenak—Tolosako Zerkausia, Santa Klarako komentua...—, eta irudi birziklatu ederrak: “Baso eta oihan/ supersonikoetan,/ hari-tzak hegan”.

Hirukoteen asimetrian aurkitu du berriro idazleak narratibari edo beste era bateko poesian aurkitu bide ezin duen askatasuna, esanahia baino harago doazen konposizio zahar—eta era berean eterno— hauetara itzuliz. Baina Elkar argitaletxearen poesia bilduman bertan argitaratutako Peru Magdalena-*ren Hutsiken* ia segidan dator Linazasororen haiku-liburu hau, eta iruditzen zait bildumari ez diola batere mesederik egiten eite horretara hain tarte laburrean itzultzeak. Seguruenik liburuei eurei ere ez: poesia-molde sakona da inondik ere, lehorra uneka, irakurlearen pazientzia eta egokera jakin bat eskatzen dituen. Sano noizbehinka irakur ditzaket nik behintzat ekialdeko trinkotasunok.

Bestalde, Peru Magdalena-askoz ariketa konpletoagoa iruditu zitzaidan Linazasororen enegarren *zen* jardun hau baino. Maisuki deskribatzen da hemen ere natura, urtaroen joana eta gauzen baitako maitasun guztia. Baina naturaltasuna, sinpletasuna, sotiltasuna, soiltasuna... horiek denak lor-tzea beste kontu bat da, baita espezialistentzat ere. ■

Patxi Baztarrikak 'Babeli gorazarre'

“Auzi honen gakoa, finean, Babel madarikazio-tzat hartu ordez bedekaziotzat hartzea da, hizkuntza aniztasuna baita gizakioi elkarren artean ulertzeko bidea ematen diguna” irakurtzen da Patxi Baztarrikaren *Babeli gorazarre* saiakeraren kontrazalean. Hizkuntza politikari buruzko liburu mardula osatu du Eusko Jaur-

laritzako Hizkuntza Politikako Sailburuorde ohiak. Bertan, hizkuntza aniztasuna arazo lokala barik, globala dela defendatzen du, baita Europako hizkuntzen pluraltasuna, estatu bakoitzaren afera baino, Europarena berarena dela. Alberdaniak gaztelaniaz ere argitaratu du liburua, *Babel o barbarie* izenburuarekin—Rosa Luxemburg-en esaldi famatu hari keinu egin nahian, agian—. ■




Babeli gorazarre.
Patxi Baztarrika.
Alberdania.
423 orrialde.
21 euro.

Darwin gure artera, Altonagaren eskutik

Iazko Juan Zelaia saria irabazi zuen Kepa Altonagak *Darwin geurean* izeneko saiakerarekin. Pamiela argitaletxean publikatu du orain liburua, Upaingo sailaren barruan. Gaia, biziki interesgarria, ideologikoki arbolatik jaitsi ez direnek kreazionismoaren banana sartu nahi diguten honetan: darwinismoak euskal munduan izan zuen eragina aztertu baitu idazle bizkaitarrak. Barkoxen jaiotako Leon Uthurburu-ekin hasten da liburua, eta bidaia interesgarria proposatzen du gure historian barrena. Bide ertzean topatuko ditugu, besteak beste, Jean Etxepare, Piarres Lafitte, Bizente Aizpuru, Julien Vinson, Fermin Irigarai *Larreko*, Xabier

Amuriza... Saio laburra da Altonagarena, baina, era berean, mami handikoa. ■



Darwin geurean.
Kepa Altonaga.
Pamiela.
128 orrialde.
12 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Waterproof.
The Wet Band.
Gaztelupeko Hotsak/
Danbaka.
Iraupena: 56'38".
10 euro.

Ederra eta piztia, biak bat direnean

Mutrikuko talde hau gaztea da, baina bada-ki atzera begiratzen eta iraganetik onena ateratzen. 60ko hamarkadako Hendrix, Santana eta antzekoen arima berreskuratu, 70eko hamarkadako hard-rockaren zaldi gainera igo eta era berean, antzinako musikari gaurkotasunez begiratzen diote. Are gehiago, Ainara abeslariaren ahots-txorrotari esker, gai dira instante batean goxotasunetik zure gainetik pasatzen den tinbrera igarotzeko. Horretarako, soul, rock, pop,

stoner, funky eta nahi duten estilo guztietatik pasa dira maisutasunez eta dotoretasunarekin. Pieza gehienetan ingelesez abesten dute —euskarazko salbuespena dago— eta Ainarak ez ezik, Iñigo baxu jotzaileak eta koroak sartzen dituztenek ere piezak ederto borobiltzen dituzte zaindutako ahotsekin. Danbaka lehiaketan ikusle eta epai-leen saria jaso zuten.

www.myspace.com/thewetbandrock

Endika - The Wet Band

«Musikak mundua ez, baina bertan gaudenon egoera animikoa aldatu dezake»

Zuek ura/ hezetasuna/ inspirazioa desertuan ere aurkituko zenukete, ezta? Zerk inspiratzen zaituzte konposaterako orduan?

Gure arima barruko egoera emozionalak eramaten gaituzte, askotan, konposatzerak; gainezka egin eta hustea eskatzen digutenean. Batzuetan amodioa dela medio, adiskidetasuna, gizarteko gertaerak, bizitzako etapak... eta musika bera ere bada hitzak idazteko inspirazio iturri.

Harrigarria da zuen adina kontuan hartuta zuen musikak hein handi batean 60ko eta 70ko hamarkadetako klasikoei begiratzea. Zer aurkitzen duzue talde horietan?

Soinuaren indarra, jarrera eta estetika, kantez entzulearengana iristeko duten erraztasuna, ahotsak eta koroak dituzten ñabardurak... Bi hamarkada horiek eragin izugarria izan dute gero etorri den guz-



tian. Hala ere, guk denetik entzuten dugu.

Kanta batzuetan hard-rocka otzandu egiten duzuela esango nuke, eta horretan zeresan handia izan dezakete Ainararen ahotsaren kontrapuntu garrantzitsuak eta kantei gehitzen dizkiozuen ñabardurak...

Bai, ados gaude. Rocka da gehien lantzen dugun estiloa, baina gure eremuetara ekarriz. Sustrai desberdinetatik gatozen bost buru gara, eta kanta lantzean bakoitzak bere

ukitua ematen dio. Ainararen ahotsa da ñabardura horietatik garrantzitsuenetako bat eta guztion artean baliteke efektu hori lortzea.

Askok zaintzen dituzue ahotsak, bai Ainarak, bai Iñigok, baita gainontzekoek ere, koroetan.

Kantak konposatzeko eta eraikitze orduan guretzat ahotzaren melodiak dira lehen urratsa eta ondoren instrumenta-

zioa eraikitzen dugu. Koroak melodia horiek nabarmentzeko bide bikaina dira.

Dry land eta *Hutsik* oso abesti kritikoak dira. Musikariek mundua hobetu dezakete?

Agian munduaren egoera ez, baina bai munduan bizitzen gauden pertsonen egoera animikoa; bai onerako eta bai txarrerako. Kontzientziak pizteko arma ere bada musika. ■

Ezpalak

JON TORNER

350 film baino gehiago emango dituzte Bilboko FANT jaialdian




FANT Bilboko Zinemaldi Fantastikoan iaz baino hiru bider film gehiago proiektatuko dituzte: epaimahaiaren eta ikusleen sariak (3.000 eurokoa bakoitza) lortzeko lehiak 362 film labur izango dira, eta horiez gain Nontzefilmak zinema eta animazioko film laburren lehiaketara aurkeztutako 150 lanetatik hoberenak emango dituzte. FANT jaialdia maiatzaren 3tik 9ra bitartean egingo da, baina aurrerapen moduan

beste bi ekitaldi izango dira: apirilaren 30ean The Master Plan eta Tete y los Ciclonas taldeek kontzertua eskainiko dute Kafe Antzokian, eta maiatzaren 2an Gaitzerdi antzerki taldeak afixan ageri den izakiaren esnatzea eszenifikatuko du Guggenheim Museoko armiamaren alboan.

Aiaraldea.com abian da

ARABA eta Bizkaia arteko mugan dagoen Aiaraldea eskualdea euskalduntzen laguntzeko asmoz sortu da Aiaraldea.com webgunea. Zonaldean bizi diren 40.000 biztanleengana heltzea du helburu. Eskualdeko informazioa idatziz, audioz eta bideo bidez sareratzen du 50 pertsonako taldeak. Webguneke edukiak Twitter (<http://twitter.com/aiaraldeakom>) eta Facebook bidez jarrai daitezke.

Leire Urbeltz ilustratzaileak eta Yolanda Arrieta idazleak *Itzalpetik* albuma aurkeztu dute. Etorkizuneko hiri batean, bat-batean, argindarrik gabe geratuko dira biztanleak. Bi haur erantzunaren bila abiatuko dira, eta zeruan, eguzkian eta naturan aurkituko dute konponbidea.



Juanra Madariagak eta Fermin Etxegoienek jaso dituzte Espainiako Kritikaren Sariak. Madariagaren *Eroriaren logika* poema-liburua (Susa) eta Fermin Etxegoienaren *Autokarabana* (Pamiela) nobela hobetsi ditu Espainiako Literatur Kritikaren Elkarteak. Javier Rojo epaimahaikidearen ustez, “estetizismo formaletik urrundu eta irudien kontrajartzean sakondu du Madariagak lan honetan”. Etxegoienaren nobela, berriz, “gaur egungo euskal gizartearen erretratu leiala” dela iritzi dio.



Takashi Murakami artista japoniarraren hogeitabat litografia bildu dituzte Donostiako Okendo zentroan. *Superflat new pop culture* izenburupean, azpikultura japoniarrari buruz hausnarketa egiten duen artistaren lan ezagunenak ikusteko aukera izango da ekainaren 19ra bitartean.

● **Zuriñe Fernandez de Gerenabarrena musikagilea** *EuskoneWS & Media* agerkari digitalean: «[Artistaren inspirazioa] zalantzarik terminoa da niretzat... Mundu erromantikoari dagokio eta nire iritziz gaizkiulertuak sortzen ditu. (...) Musika-ideia bat, instalazio bat, edo agian elektronikoa den zerbait aurrera eramateko modua lantzen ari zara, eta une batean ondorio jakin batera iristen zara. Baina hori ez da bat-batean gertatzen. Egitasmoa poliki-poliki heltzen doa, eta azkenean zalantzak argitu egiten dira eta sortzeari ekiten diozu. Eta bai, horrek badu zerikusia inspirazioa esaten diotenarekin, baina ez dut uste argitasun berezia duen musikariaren irudiarekin lotuta dagoenik».

● **Iñigo Muguruza musikariak Berrian**: «Behin Kuban izan ginen, eta handik bueltan Ferminen askotan kontatzen zuen, umorez, Fidelekin [Castro] egoteko aukera izan genuela, eta hark esaten zuela: ‘Negu Gorriak gus-tatzen zait, baina Kortatu hobea zen’. Gauza bitxia da, baina talde bat desagertzean azaltzen dira zale asko. Azkenaldi honetan esan izan didate: ‘Niri benetan gus-tatu izan zaidana Sagarroi da’. (...) Niretzat, Youtube aurkikuntza ona izan da. Atzera begiratzeko erabiltzen dut. Denetik dago. Rory Gallagher, The Specials, Silvio Rodríguez, rock musikari zaharrak, bluesmanak... Akaso, argazki zahar bat baino ez da agertzen, baina oso grabazio on batekin lagundua».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

'Bizarre love triangle'

80 egunean. Zuzendariak: Jon Garaño, Jose Mari Goenaga.
Aktoreak: Itziar Aizpuru, Mariasun Pagoaga. 100 minutu.

NEW ORDER taldearen kanta hura gogoratuz esan genezake, 80 egunean filmekoa ere maitasun hiruki bitxia dela. Ezohikoa bai behintzat, euskal zinemagintzaz ari bagara. Eta, horregatik, pozgarria.

Axun ospitalera doa: alabaren senar ohia koman dago eta beste inor ez zaio bisitan joaten. Gelara iristen delarik, ondo-ko ohean beste gizon bat, landare; eta Axunen adin beretsuko emakume bat, globoak, tarta bat, mugitzen ez den gorputzari urtebetetzetako kanta abesten. Maite da. Hasieran ez dira jabetuko, gero bai: txikitatik ezagutzen dute elkar. 50 urte joan dira. Baina pixkanaka denboraren marasma-sareak desager-tzen joango dira. Lagun egingo dira, hasieran; eta, gero, maitale. Baina 70 urteren bueltan dabilta biak. Eta batez ere, Axun ezkontuta dago, baserrian bizi da Juan Marirekin, bizimodu tradizionala abenturetarako. Barruak Maiterengana eramaten du. Ohiturak Juan Mariren ondoan atxikitzen.

Hara hor abiapuntu zail bat, film batentzat: edadeko pertsonen arteko sexua tabua den honetan, Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak jubilatuen arteko harreman lesbikoa pantailaratu dute, konplexurik batere gabe eta egiantzekotasuna zainduz –azpimarratzekoa, zentzu horretan, aktore bakoitzak bere euskalkia erabiltzea–. Axuni kostako zaio Maiterekin sentitzen duena ulertzen, txikitatik sentitzen zuen erakarpena bere buruari onartzen. Ez da bikote aldaketa hutsa: bizimodu osoa da. Hiria vs. herria; kaleko solairua vs. baserria; amonetzako perlazko belarritakoak vs. Maitek oparitutako arrakada modernoak.

Bi munduen artean ibiliko da Axun, zaharrarekin ezin hautsi, berria ezin utzi. Filma bera ere hortxe dabilela esango nuke. Hiria besarkatzen du, baina tradizioari traizio egin gabe. Ez dakar mezu apurtzailerik eta formak ere horrelakoak dira: sotilak. Detaileei arreta eskainiz egingo dago, giroa zainduz. Zeresan handia du horretan Pascal Gaignek osatutako soinu-bandak –eta oraintxe konturatu naiz, hain musika ona duen filmaren kritika beste talde bat aipatuz hastea, ez dela oso itxurosoa; barka beraz–. ■



Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!

Gonbit-txartelak astebete lehenago
ekintza egingo den liburutegian.

ARRIAGA

- **Hala bazan edo ez bazan...**
batzuetan soberan baino hobe
falta izan. Maiatzak 19, 18:00
Ipuin kontalaria. Adina: 3-6

IPARRALDE

- **Bertsoren saltsan**
Maiatzak 13, 19:30
Andoni Egaña - Izar Mendiguren
"Bertsorekin jolas" ikuskizuna.
Gazte eta helduentzat

HEGOALDE

- **Munduko zenbait kondaira.**
Maiatzak 3, 18:00
Ipuinak. Adina: 3-6
- **Euskaldun gazte baten istorioak**
Maiatzak 21, 19:00.
Iñaki Carretero - Usue Zapata.
Ipuin kontalaria eta musika.
Gazte eta helduentzat.

ALDABE

- **Gazi gezako istorioak** Maiatzak 5
18:00. Ipuin kontalaria.
Adina: 5-10

IBAIONDO

- **Tina** Maiatzak 4, 18:00.
Txotxongiloak. Adina: 3-8
- **Telepuina** Maiatzak 11, 18:00
Antzerkia. Adina: 5-12

ABETXUKO

- **Txintxin magikoa** Maiatzak 25
18:00. Magia ikuskizuna. 5 urtetik gora

LAKUA

- **Txintxin magikoa**
Maiatzak 27, 18:00
Magia ikuskizuna. 5 urtetik gora

PRINCIPAL ANTZOKIA

- **Ttakun Ttan Ttakun** Maiatzak 15,
20:30. Musika emanaldia.

EHU-KO LETREN FAKULTATEA

- **Negutegia: ahotsa, hitza eta gorputzaren artean**
Maiatzak 19, 10:30.
Ixiar Rozas. Hitzaldi Zikloa

ETORRI ETA GOZATU GUREKIN!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ANA ZAMBRANO



XAVIER LÓPEZ

HARIA BILDUZ EGIN- DAKO BOLA		PERTSO- NAIAREN ABIZENA		... EGIN, AGURTU		UOLDE-UR		DENBORA, GARAIA		ZUREAK	
JAUIZI		LABURPEN				NAFARROA BEHEREKO UDALERRIA		TANGAK, POTEAK		ASMO SENDO, ERABAKI	
GIZONEZKO IZENA						PERTSONAIA- REN IZENA					
ASKE						EDARI ALKOHOLIKO					
				"ELUR URTE, ... URTE"		ARDIAREN ILE					
				EDADE		UDALERRI NAFARRA					
PATATA (IPAR.)								ARABAKO IBAIA			
LANDARE ALEDUN								LOKARRIA, LOTURA			
				DISTIRA, DIRDIRA						BERKELIOA	
				NARRASTI IZENA						AIRERIK IGAROTZEN UZTEN EZ DUELA	
GAITZ KUTSAKOR LARRIA, NAFARRERIA	LEKU					FRUITU GORRI					GEHIEGI- KERIAK EGITEN DIREN JAIA
	AMONA (BIZKAIAIN)					BEZALA					
								HAUTSAREN ARAKNIDO			
								EMAKUME ZAHAR			
BAKILAO ARRABA											
MUSIKA ESTILO						ZERUKO ARGI			ZEIN		
						UKAMEN			ILE (BIZKAIAIN)		
				DOHANIK, HUTSEAN							GRAMOA
				HEKTAREA							1500 ERROMATAR ZENBAKIZ
MENDIKO BIDE MEHAR											
FRUTA- ARBOLA						HESTEBETE MOTA					
								ARRAZA			

Kike Amonarrizzen umorea

— Bai, badakit! Bera, ordea, Karlos zen! —erantzun du alargunak—. Baina politikaria zen eta badaezpada ez zitzaion gustatzen gauzak bere izenean edukitzea!

Soluzioa

	H	I				A	H					
S	A	L	T	O		H	O	L	D	I		
	R	A	U	L		A	N	D	E	R		
L	I	B	R	E		O	A	R	T	I	L	E
	L	U	R	S	A	G	A	R	Z	A	I	A
G	A	R	I	D	I	R	D	A	I	B	K	
		T	T	O	K	I	T	O	M	A	T	E
B	A	Z	T	A	N	G	A	A	K	A	R	O
	M	A	Z	I	I	Z	A	R	N	O	R	
R	A	P		M	U	S	U	T	R	U	K	G
	M	E	H	A	K	A	S	A	L	A	M	I
B	A	N	A	N	O	N	D	O	E	N	D	A



hh
hik hasi

XI. HIK HASI Udako Topaketak

Donostian, uztailak 1 eta 2



Matrikulatzeko azken eguna: maiatzaren 28a

Jendaurrean hitz egiteko, **Ahotsaren erabilpen egokia**, Euskarazko literatura, **Euskal mitologia eta ipuinak**, Nola erabili testigantzak, **Adimen emozionala**, Psikomotrizitatea, **Orkestra musikaterapeutikoak**, Osasun mentala, **Haurrentzako masajea**, Jolastu eta sortzaileki pentsatu HHn, **Hizkuntzaren jolasa**, Buru-mapak, **Matematika tailerra**, Irakaskuntza 2.0. Wikiak, **Web 2.0. Google**, Bideoa, **Artea eta irudia**, Marrazten ikasi, **Egurra lantzen**, Papera eta kartoia, **Biodantza**, Euskal dantzak LHn, **Europako dantzak**, Cos-Art metodoa, **Perkusioa: panderoa eta batukada**, Yoga saioak irakasleentzat, **Coaching...** eta arratsaldeetako kafe-solasaldiak.

Informazioa: www.hikhasi.com edo 943 371 408

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Martera bidaia 2035. urtean

GIZAKIA, ilargira ailegatu zenetik igaro diren 40 urteetan, espazioa ezagutzen saiatu da, baina planetetarako jauzia etenda du. Plan asko egin izan dira urte hauetan, baina krisia edota istripuak direla medio, gehienak bertan behera geratu dira.

Apirilaren erdian, Barack Obamak NASArako dituen asmoen berri eman zuen. Horiek betez gero, Marterako bidean jarriko da espazio-agentzia, baina aurretik Lurraren eta Marteren arteko asteroide batean jarriko du lehen helburua. Asteroideek atmosferarik ez dutenez, erraza izan daiteke beraietan lur hartzea, eta ez da ahaztu behar interes zientifiko handikoak direla, unibertsoaren osagaiez informazio ugari eman dezaketelako. Baina esan dutenez, 2025. urtera arte itxaron beharko dugu bidaia hori egiteko.

Martera joatea askoz zailagoa da. Nagusiki, ontziak espazioratzeko behar diren jaurtigailuetan dago gakoa, egungoek baino askoz ere ahalmen handiagoa eduki beharko baitute. 2035. urtean egin genezake lehenengo bidaia Martera, baina horretarako, hamarkada honetako erdialdean prest egin beharko du jaurtigailuak.

Asmo horiek abian jartzeko beharko den dirutza ez da nolanahikoa izango. Horren adibide ditugu Obamak datozen bost urteetarako esleitu dituen 6.000 milioi dolarrak.

Eguzkiaren jarduera apala, negu hotzaren erantzule?

AURTENGOA hemezortzigarren negu hotzena izan da Erresuma Batuan 1659. urteaz geroztik.

Reading-eko Unibertsitateko Mike Lockwood-en lantaldeak urte horretatik gordeta dauden datu meteorologikoak aztertu ditu, eta oro har, eguzkiaren jardueraren eta neguko tenperaturen arteko harremana egon badagoela diote; hau da, eguzkiaren jarduera apala denean aukera gehiago dago neguak gogorak izateko. Antza denez, eguzkiaren jarduerak eragina du troposferako aire-korronteetan; horrela, batzuetan Ozeano Atlantikoko aire epelei igarotzen uzten die, baina besteetan iparraldeko aire hotzak irabazten du lehia.

Hori dela-eta, datozen neguak ere oso hotzak izateko probabilitate handia dago. Ez da berri txarra gauden beroketa garaian.

Noizko petrolio produkzioaren gailurra?

Aspaldi ari dira ikerlariak petrolio produkzioaren gailurra noiz izango den igarri nahian. Joan den mendean 2020. urterako iragarri zuten, baina orain 2014an jarri du muga Kuwaiteko zientzialari talde batek. Hortik aurrera, ekoizpena urriagoa izango da urtero.

<http://ttiki.com/12496> (Gaztelaniaz)

Sonic hedgehog genearen eragina gorputz-atalen hazkunderan


Sonic hedgehog izeneko geneak beso eta hanken hazkunderan duen eragina gauza jakina zen zientzialarientzat; hari zor zaio, esaterako, atzamar edo behatz bakoitza dagokion lekuan egotea. Orain, arratoi-enbrioiekin egindako saiakeretan, larruazalean topatu dute gene hori. Ustekabeko handia izan da ikerlarientzat.

<http://ttiki.com/12497> (Gaztelaniaz)

Desafio matematikoak modan

3x3 matrize batean, zutabee-tan, ilaretan eta diagonaletan kokatuta dauden zenbakien karratuen batura berdina izatea lortzen baduzu, 8.000 euro eta txanpan kaxa bat irabaz ditzakezu.

<http://ttiki.com/12499> (Frantsesez)



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Irakurleak galdezka

Ixil asko Jakoba. Landareekin soinutan egoteko jardueran nauzu. Enborrak eta adarrak astindu, hostoak zapaldu edota esku artean kraska karrakatu, belarriondoak petaloz ferekatu... Bai eta haizea eta zuhaitzen arteko esamesa amaigabe eta entziklopedikoa irakurri: zuhaize. Batzuek musika paratzen omen diote zenbait landareri, emankorrango haziko direlakoan. Iruditzen zait landareak ere aspalditik hasi zaizkigula haien musikarekin gu entretenitzen eta bideratzen. Landareekin egiten dugun larru edo azal jotze horretan, noraino ahal du landareak? Arbolak kokorra astintzea edota etxeko salako landare exotikoari hostoak igurtzea edo abarrak tolestea... Maite al dute haiek, landareek? Guk bezain beste?

Alex Mendizabal (Erroma, Italia).

Alex, fereka bat belarriondotik...

Landareekin soinutan bada ere, egoteko jarduerak zailak zaizkidak. Landareekin soinutan ari hadi.

Zuhaitz eta haize. Zu haize. Gauza bera ez al dituk bada? Ez al ditek zuhaitzek adarrak mugituz haizea sortzen? Ez al ditek zuhaitzek haizetik bazkatu eta lurpeko, benetako zuhaitza elikatzen?

Landareekin larrua jotzeko kontuari helduz: guk bezain beste maitatzen ote duten galderak berak min ematen zidak. Haiena bai maitasuna. Gurea? Gurea, larru berri bat jotze hutsaz ezereztan diagu, hiltzaile bihurtzeraino. Landareen maitasuna ez zegok larruan, ez duk azalekoa. Begiratu eta begiak itxi, usaindu eta aditu, darion musika entzun, urrutitik ukitu eta batez ere jan. Azala, zortena, begia, hostoa, lorea, fruitua, hazia... jan. Haren onena hire hoberena izango duk. Orduan zainduko hatzaio. Itsu motzetik ireki, goitik behera ireki hadi landareari.

Orain hostoz jantziko duk, azalak eguzkitik babesteko; hi ere soineko horren pean jarri. Loratu eta fruitutuko duk; hik ken eta jan, loretik hobe, alde ederrekoak...

Udazkenean, hostoak lurrera jolasera bidali eta biluzten duk; hik gauza bera egin.


Idazle batek Jean-Jacques Rousseuren landareei buruzko idatziak irakurtzeko aholkatu zidaan. Suitzar ilustratuak idatzi zian: landareen jakintzak "arimaren bekatuak garbitzen ditu" eta "pasioen gar iskanbilatsuei aurre egiten die". Orri honetako neureak irakurtzeko ohitura baldin baduk, honez gero badakik: nik arimaren eta gorputzaren bekatuak eta pasioen garren zalapartak atsegin dizkiat. Landareak maitatzeko ezagutzen dudana era onena duk.

Bukatzeko, ilustratuak ahaztu eta landareen musika nahi baduk tori bi, nafarrak biak: Josetxo Azkonaren *Arbola naiz, eta zuhaitza* eta Ander Olaizolaren *Baso baten egunerokoa* liburuak hor zeuzkaagu, gu bezalakoen zain... Ez zegok horrelako Rousseaurik!

Alex, ondoloin eta bizi. Pott.

Azkarate senatore

MADAGASKARREN ez, baina Afrikara begira bai, Cadiz aldean, han ez beste inon, *Ononis azcaratei* landarea bizi da. Euskal abizen hori, landareak izendatzeko era xeble baten ondorio da. *Ononis* generokoak dira, babatarretakoak, itxiokorra *Ononis spinosa* eta antxiliparra edo txingiliparra *Ononis fruticosa*. Abizeneko *azcaratei* Justino Azkarate zenaren omenezkoa da. Nafarroako Izu eta Aibarko jatorriko Madrilgo familia bateko seme, Espainian zer esana eman zuen XX. mendean. Errepublikako ministro izatetik, erregeak bere nahierara senatari izendatu eta gaur egun azalutsezko "liberal" izenpean bere muturreko eskuina ezkutatzen dutenen arterako bidea gozo-gozo egin zuen, besteak beste. Eskuinzabal, Fundación para la Ecología y la Protección del Medio Ambiente-ko sortzaile eta lehendakari ere izan zen. Honek Andaluziako landaredia ikeritzeko eginiko ahaleginaren saria omen da, han ez beste inon bizi den landare honi jarria zaio abizen euskaldun hori. Lardizabala, Etxeberria... baditugu euskaldunak landaretan, xeblea izan daiteke baina abizenak dioena eta landarea beste upeleko sagardoa izatea. Adibidez, gaurko Cadizeko hau azkara-teetakoa, haitz garaietako ateetakoa al da?



RAFAEL SÁNCHEZ CARRIÓN

Ononis azcaratei.
Cadizen, Espainian,
baizik ez dago euskal
deiturako landare hau.

Bolaleku S.A.T.
Konpost planta

Bi•lurra
Compost ongarri organikoa

LORE•LURRA
Sustrato unibertsala

Lur begetal ongarritua, ereindakoa, estaltzekoa,
Idor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Erizainen ama eria

FLORENTZIA (ITALIA), 1820ko maiatzaren 12a. Erizaintza modernoaren sortzaile Florence Nightingale jaio zen. Gurasoak britainiarrak izan arren, Italian bidaiazten ari ziren bigarren alaba jaio zenean, eta Toskanako hiriaren izena jarri zioten.

Familia aberatsekoa izanda, ondo ezkondu eta etxean geratzea zegokion, baina 20 urte zituela matematika ikasteko asmoa zuela esan zien gurasoei. Haiek ez zioten nahia betetzen utzi, baina handik gutxira erizain izan nahi zuela erabaki zuen. Gurasoen ezezkoa jaso zuen berriro ere; ordura arte, erizaintza pobreentzako lanbidetzat zuten.

1849an Europara eta Egiptora bidaia abiatu zuen. Han ez zuen gurasoen oniritzirik behar eta Alexandriako ospitale batean erizain moduan trebatzen hasi zen. Alemanian eta Frantzian ere lanbidea ikasten eta hainbat ospitale-sistema aztertzen jardun zuen. 1853an Londresera itzuli zenean, sodatarik gabeko superintendente postua hartu zuen emakumeentzako ospitale batean.

Hurrengo urteko martxoan Britainia Handiak, Frantziak eta Turkiak Krimeako gerra abiatu zuten errusiarren kontra. 1854ko irailean, Alma ibaiko guduan, errusiarrek menpean hartu arren, *The Times* egunkariak gogor kritikatu zituen britainiarren medikuntza instalazioetako baldintza kaxkarrak. Orduan Gerra idazkari eta Florenceren lagun Sidney Herbertek ospitale militarretan erizain-administratzaile izateko eskatu zion Nightingaleri. Urte bereko azaroaren 4an Nightingale eta beste 38 erizain Konstantinoplako Eskutari auzunera iritsi ziren.

Berehala agintari militarren aurreiritziekin egin zuen topo, baina pixkanaka ospitale-sistema erreformatzen hasi zen. Bi urte eta erdian, gaixoen heriotza tasa %40tik %2ra jaitsi zen.

Florence Nightingale
(1820-1910)
erizaintza
modernoaren
sortzailetzat jotzen
da. Duela ehun urte
hil zela-eta, haren
inguruko erakusketa
antolatu dute EHUKo
Medikuntzaren
Historia Museoan.
Urte amaierara arte
izango da ikusgai.



WWW.FLORENCE-NIGHTINGALE.CO.UK

Baina gaixoak sendatzen laguntzen zuen bitartean, erizainen buruak bruzelosia harrapatu zuen. Eritasunak ohean garai luzeak pasatzera kondenatu zuen Nightingale bizi izan zen artean. Erizain moduan lanean jarraitzerik ez zuen izan, baina behar eskerga egin zuen teoriaren esparruan: 200dik gora liburu eta txosten argitaratu zituen. Epidemiologian ere ikerketa garrantzitsuak egin zituen eta, gaztetako bokazioari berriro helduta, estatistika landu zuen. Hainbat erakunderen esker ona jaso zuen hil baino lehen; besteak beste, Britainia Handiko Merituaren Ordena jaso zuen lehen emakumea izan zen, 1907an. Hiru urte geroago hil zen, 90 urte zituela.

Arrastoak

The last train from Hiroshima lehertu da

CHARLES PELLEGRINO idazlearen *The last train from Hiroshima* saiakera best seller bihurtu zen urtarilean argitaratu eta berehala. Bertan, Hiroshimako bonba atomikoaren eztandaren lekuko-koen testigantzak biltzen dira; besteak beste, Joseph Fuccorena. Fuccok, ustez, bonba jaurti zuen *Enola Gay*

hegazkinarekin batera zihoan beste hegazkin bateko ingeniaria ordezkatu zuen. Baina berriki frogatu da Fucco ez zela Hiroshiman izan. Hala, Pellegrinoren liburuaren egiazkotasuna auzian jarri da eta James Cameron zuzendaria lana zinemara eramateko zeukan asmoa bertan behera utzi du.



Herrien izenak ez dira beti legezkoak

Euskal Herriko udalerrien izenen zerrenda emana du Euskaltzaindiak, baina horrek ez du beti bat egiten izen ofizialekin. Iparraldean legediak agintzen du hala izatea; Hegoaldean, berriz, herri gehienek daukate izen ofiziala euskaraz, baina ez denek. Eta batzuek euskaraz bai, baina oker.

UNAI BREA

EUSKARAZ ARITZEN GAREN kazetariok ondo ezagutzen dugu bidea. Euskaltzaindiaren webguneak badu izendegiei buruzko atala; bertan bilaketa azkarra eginda, erraz aurkitzen dira, beste ehunka toponimoren artean, Euskal Herriko udalerri guztien izenak. Eta ez kasu gutxitan, izen bat baino gehiago edukiko du udalerri berak. Ofiziala batetik, Euskaltzaindiak emandako era arautua bestetik. Ipar Euskal Herrian, denok ezagutzen ditugun arrazoiak medio, bata eta bestea sekula ez dira bat etortzen. Sal-

buespenik izatekotan —guk ez dugu aurkitu—, kasualitate bati esker izango da, euskararen eta frantsesaren sistema fonologikoa eta ortografia oso desberdinak direlako.


Gai honetan zentralismoaren gailurra jo du Frantziako Estatuak: udal baten izena aldatzeko eskuduntza Ministro Kontseiluak du. Hegoaldean, berriz, Nafarroan Gobernuari dagokio ardura, eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan udal bakoitzari. Hala ere, EAEko Euskararen Legeak dio herri izenak dagokion hizkuntzan eman behar

direla, Mikel Gorrotxategik, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko idazkari eta Onomastika Zerbitzuko arduradunak, gogorarazi digunez. “Euskarazkoak euskaraz, gaztelaniazkoak gaztelaniaz, eta biak daudenean, biak”.

Nazioartean nagusi den joerari segitzen dio Euskaltzaindiak: toponimoak jatorrizko hizkuntzaren forma akademikoan eman behar dira. Horregatik, esaterako, “v”-z idatzi behar da Villabona erdal izena, eta ez Billabona.

Euskaraz forma akademikoa

Euskaltzaindiaren arauarekin bat ez datozen udalerri bi ageri dira errotulu honetan: Bilbo eta Sopela. Euskal era arautua eta izen ofiziala berdinak ez diren Bizkaiko udalerrietan, bi hauena da adibiderik esanguratsuena.



INIGO AZKONA



UNAI BREA

zein den ezartzea Euskaltzaindiaren erantzukizuna da. 1979an, Hegoaldean euskarazko izenak ofizial bihurtzen hasi zirenean, izendegi bat proposatu zuten, eta geroztik izendegi hori lantzen segitu dute, baita euskara ofiziala ez den eremuetarako ere. Emaizta arestian aipatu dugun euskal era arautuen zerrenda da. Hura osatzean erabilitako irizpideez berba egin digu Gorrotxategik: “Begiratzeko da dokumentazioan nola agertu diren toponimoak, nola erabiltzen dituzten euskaldunek gaur egun eta, dakigun apurrean, nola erabili duten iraganen”. Horrez gain, lege fonetikoak hartu behar dira kontuan. Euskaltzaindiak ahozko aldaera batzuk onartzen ditu idatzizkorako, eta beste batzuk ez.

Euskaltzaindaren saiakerak

Euskal era arautua Euskaltzaindiaren beste edozein arau bezalakoa da. Horrek esan nahi du batuaz idazten ari denak hura erabili behar duela zuzen arituko bada, udalerriaren izen ofiziala edozein dela ere. Gasteiz idatzi behar da euskarazko jardunean, eta ez Vitoria-Gasteiz. Hortik landa, Euskaltzaindia saiatzeko da, saiatzeko denez, lurralde eremu bakoitzean eskuduntza daukan administrazioarekin harremanen jarri eta udal guztien izen ofiziala euskarazkoa izan dadin, edo behintzat euskarazkoa

ere ager dadin erdarazkoarekin batera. Ez du beti lan erraza, eta Gorrotxategik azpimarratu gura duenez, indarra ere ez du sobera izaten halako eginkizunetarako.

Ipar Euskal Herrian, bistan denez, antzua da administrazioarekiko edozein hurbilketa. Bestalde, herri ekimenari esker herri askoren sarreretan ikus daitezke euskarazko

Euskaltzaindiko Mikel Gorrotxategik dioenez, EAEn administrazioak legea urratzen duten udalen alde egiten du, “izen ofiziala hau da eta...” argudiatuz

errotuluak frantseseko ofizialarekin batera, baina ez daude beti zuzen idatzita, era arautuari men eginez esan nahi baita. “Ahalegintzen gara errotulu horiek ipintzen dituztengana joaten, baina hori da agian gehien kostatzen zaiguna”, dio Euskaltzaindikoak.

Hegoaldeko egoera guztiz desberdina da: udalerri gehienek daukate izen ofiziala euskaraz, bakarrik edo erdarazko izenarekin batera. Gutxi dira gaztelaniazko forma hutsari eusten diotenak, eta denak, Arabako bat izan ezik, Nafarroan daude. Euskaltzaindiak ematen duen era arautuarekin bat ez datozen gainerakoek euskaraz daukate

Iparraldean euskara ofiziala ez izanagatik, herri batzuen sarreretan euskal izena ikus daiteke frantsesekoaren aldamenean. Alta, horietan ematen den euskal forma ez dator beti bat Euskaltzaindiak emandako era arautuarekin, argazkian ageri den Altzürükün bezala.

izena, baina oker. Kontuan hartu behar da, bestalde, zenbait kasutan galdua dela herriaren euskal izena. Horrelakoetan, erdarazkoa onartzen da euskal era araututzat. Arabako Errioxan dagoen Villabuena, edo nafar Erriberako Caparroso, Murillo el Fruto eta abar, halaxe idatzi behar dira euskaraz ari garenean ere.

Legez kontra EAEn

Esan dugunez, EAEko Euskararen Legearen arabera jatorrizko hizkuntzan behar bezala idatzita eduki behar dute izena udalerri guztiek. Bi hizkuntzetan izena dutenek, bietan. Arrasate/Mondragón, esaterako. Kasu horietan, euskarazko aldaera, noski, euskal era arautuarekin bat etorri behar da. Eta kasu gehienetan, euskarazkoa da izen bakarra. Baina legeak lege, dozena bat inguru herrik —zehatzago esateko, hamalau aurkitu ditugu Euskaltzaindiaren webgunean arakatzuz— ez diote horri men egiten. Zazpi Bizkaian daude, sei Araban eta bakarra Gipuzkoan.

“Legeak izan duen garapen eskasa da arazoa”, dio Gorrotxategik. Horren frogar izan daiteke, berbarako, izen bi dauzkaten herriek bien ordena libreki erabaki ahal izatea. Lehenbizikoa euskaraz du Donostia-San Sebastián, alderantziz Vitoria-Gasteiz. Biek ala biek, bestalde, gidoiaren ordezkari erabili behar lukete izen biak bereizteko, Euskaltzaindiak orain dela urte gutxi emandako arau baten arabera, baina lehengoari eusten diote.

Gidoiaren auzia, hala ere, hutsaren hurrengo aldaera da beste batzuen aldean. Lege garapenik ez dagoenez, hura urratzeak ez dakar inolako ondorioz, Gorrotxategik salatzen duenez. “Are gehiago, administra-

zioak legea urratzearen alde egiten du, ‘izen ofiziala hau da’ argudiatuz. Eta bai, ofiziala izango da, baina legez kanpokoak”. Zenbait kasutan, ortografiatzeko aldaketa txikia besterik ez dago, “tz”-ren ordeztu “z” erabiltzea eta hala-koak. Beste adibide batzuk lazgarriagoak dira. Aipa ditza- gun zenbait.

Arteaga eta Sopela

Gorago aipatu ditugun lege fonetikoei buruzko arauak ez diete jaramonik egiten Bizkaiko udalerri bi hauek, ofizialki Arteaga eta Sopelana. Lehenbizikoaren kasuan, Euskaltzaindiaren irizpidea da ezin dela onartu idatziz-koan bokal arteko “g”-a gal- tzea; euskaldun askok egiten dute, baina beste askok ez. “Atzo goizeko gauza da hori, ez da lege fonetiko; Arteaga esatea, gaztelaniaz *Zeviya* esatearen parekoa da”, dio Gorrotxategik. Ez du balio idatzi- rako, beraz.

Sopelana gertatzen dena alderan- tzikoa dela esan daiteke. Bokal arteko “n” leuna galtzea, hori bai, guztiz orokortuta dagoen euskara- ren lege fonetiko da, toponimian ez ezik hiztegi arruntan hamaika adibideak erakusten duten bezala. Sopelana, bertako Udalak aldarri- katzen duenez, euskal izena da, egia, baina orain dela 1.000 urteko euskaldunek erabiltzen zutena. Beste hiri espainiar batekin konpa- razioa egin, Sopelana erabiltzea Zaragozari Cesar Augusta esatea bezalakoa dela dio Gorrotxategik.



Irudian, Bera, euskal izena izen ofizial bakarra izateko epaitegietara jo duen Nafarroako bi herrietako bat da. Bestea Orkoien da. Bi kasuetan, Gobernuaren erabakiaren aurka jo behar izan zuten udalerriek.

Bilbo

Zeinek eta Euskal Herriko hiri handienak ere muzin egiten dio Euskaltzaindiaren gomendioari. Bitxieta da Udalak berak eskatu zuela gomendio hori, eta aitzinda- rietakoa izan zen gainera, 1979an egin baitzuten eskaria. Hiria- ren euskal izena Bilbo zela esan zioten Euskaltzaindikoek, Koldo Mitxele- nak hain zuzen, baina izen ofiziala Bilbao da hala eta guzti. “Euskaraz aipu bakarrean agertzen da Bilbao izena, XVI. mendeko erre- frau batean. Gainerakoan, euskal idazle guztiek Bilbo erabili izan dute beti; gauza bera egin dute Bizkaiko eus- kaldun guztiek, eta baita Bilbo- Donostia trenbidearen ondoko herrietako gipuzkoarrek ere”. Argudio gehiago behar duenak...

Bidania-Goiatz eta Villabuena

Izen ofiziala Bidegoian du gipuzkoar udal txikiak, Bida- nia eta Goiatz herriek batzea erabaki zuten geroztik. Eus- kaltzaindiak, besterik gabe, ez du neologismoa onartu, Ara- bako Eskuernaga onartu ez duen bezala. Aipatua dugu honez- kero herria, Villabuena da eta. Ofiziala, berriz, Villa- buena de Álava/Eskuernaga. Bitxia da, zinez, kasu hau: Euskaltzaindiak erdarazko izena dauka euskal era aratu- tzat —de Álava “abizena” alde batera utzita—, eta Udalak eus- kal izentzat daukana ez du onartzen. “Herriaren antzina- ko izena Villaescuerna zen”, argitu digu Gorrotxategik, “eta ulertzeko denez, XVIII. mendean gobernadore zibilari

aldatzeko eskatu zioten, inguruko guztiek iseka egiten zitelako”. Gobernadoreak Villabuena izena eman zien, eta denak pozik. Euskal izenak ofizialtzen hasi zirenean, Euskaltzaindiak Uriona proposatu zuen, baina herriak ez zuen onartu. Aldiz, norbaitek asmatutako Esku- ernaga besarkatu zuten, “Villaescuerna zaharretik abiatutako izena, hanka eta bururik gabeko etimologian oinarritua”. Azkenik, etsita, Eus- kaltzaindiak atzera bota zuen inork erabiltzen ez zuen Uriona, eta Villabue- na atxiki, baina Udalak Eskuernari eutsi zion. Gaur arte. ■

argia.com Maiatzaren 3tik aurrera, zenbait euskal herritako izenak buruzko informazio gehiago aurkitu ahal izango duzu Unai Brearen blogean.

gozatu euskaraz

gure artean euskaraz

BFA DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Maiatzaren Lehena

Enplegua aldarrikapen nagusi bihurtu da

Datorren maiatzaren lehenean langileen eguna ospatzen da Euskal Herrian eta mundu osoan. Egun hau duela 124 urte ezarri zen langileen eskubideen alde, 1886an, 14 eta 18 orduko lanaldi nekagarriak murriztea eskatzen zuen langile taldea sarraskitu baitzuten.

DANIEL UDALAITZ

ZALANTZARIK GABE, mundu osoan 1890etik burutzen den Maiatzaren Leheneko aurtengo ospakizunean, datorren larunbatean, Euskal Herriko nahiz munduko beste hainbat herrialdeetako langileek kalera eramango duten errebindikazio nagusia enplegua izango da. Data horretan, 1886an, 16 ordutara iristen ziren lanaldi nekagarriak murriztearen alde ari ziren langileak sarraskitu zituzten Washingtonen. Jatorri iluneko atentatu baten ondoren, sei langile atxilotu eta hiltzera kondenatu zituzten. Horietako biri heriotza zigorra konmutatu zieten eta horren ordez biziarteko kartela zigorra ezarri zieten; gainerakoak urkatu egin zituzten. “Chicagoko martiriak” esaten zaie ordu-tik.

Aurtengo langileen eguna duela bi urtetik hona planeta osoari eragiten dion eta mundu osoan milioika langabetu ekarri dituen krisi ekonomiko eta finantzario betean burutuko da. Gaur egun, ofizialki, Euskal Herrian 200.000 langabetu inguru daude, horietatik 181.878 Hego Euskal Herrian –martxoko azken datu ofizialaren arabera–. Gainerako milaka langileak Ipar Euskal Herrikoak dira. Espainiako Estatuan, aipatutako hilabetearen, langabeziak lau milioi pertsonen eragiten zien (4.166.613), biztanleria aktiboaren %20 inguru. Frantziako Estatuan, aldiz, 2,7 milioitik gora pertsona daude langabezia eta horrek esan nahi du biztanleria aktiboaren %10 langabetuak direla.



DANI BLANCO

Eraikuntzako langileak izan ziren 2008ko krisiaren eragina nabaritu zuten aurrenekoak. Egun 200.000 langabetu inguru dago Euskal Herrian eta kopuruak hazten jarraituko du.

200.000 langabetu inguru Euskal Herrian

Gaur egun dagoeneko 200.000 inguru dira Euskal Herrian lanik gabe dauden pertsonak. Hego Euskal Herriari dagokionez, dagoeneko eskura daude martxo amaierako datuak. Data horretan langabeziak 181.878 pertsonen eragiten zien, hau da, biztanleria aktiboaren %13,47ri. Martxoan beste 965 pertsona gehitu zitzaizkion aurreko

hilabeteko langabetu zerrendari. Eta apirilean ere beste ehunka batzuk erantsiko ziren, maiatzaren lehen aстера arte daturik jakin ez arren.

Langabeziak ez die berdin eragiten lurralde guztiei. Hala, Araban (20.444 langabetu) eta Nafarroan (43.753) langabezia, hurrenez hurren, 110 eta 17 pertsonetan murriztu zen martxoan, aurreko hilabetearekin alderatuta. Aldiz,

Lan eta pentsio erreformen zain

Langabezia gure gizartearen kezka nagusietakoa izan arren, Euskal Herriko nahiz Espainiako Estatu osoko langileak arduratuta daude iragarritako lan eta pentsio erreformek ekarriko dutenagatik. Enpleguaren gaiarekin batera, beste bi afera hauek ere gogoan izango dituzte Maiatzaren Leheneko manifestazioek eta aldarrikapenak. Espainiako Gobernua, CCOO eta UGT espainiar sindikatuak eta Patronala aspaldian ari dira gai hauek lantzeko negoziazioetan, baina orain arte ez da akordiorik izan.

Patronalak gizarte segurantzaren enpresa kotizazioak murriztea, kaleratzeak merkatzea, kontratu mota

ezeгонkorragoak sortzea eta lan malgutasuna eta mugikortasuna handiagoa izatea nahi du. Sindikatuek ez dute beren jarrera zehaztu; kaleratzea merkatzearen aurka eta enplegua are gehiago ezeگونkortzearen aurka daudela baino ez dute adierazi. Bestalde, Espainiako Gobernuak Patronalaren nahia betetzeko prest legoke gizarte kotizazioen murrizketari dagokionean. Halaber, badirudi lan kostu gutxiago litzukeen kontratu mota berria onartzeko prest dagoela. Pentsioei dagokionez, Toledoko Itunean erretiratzeko adina luzatu ala ez eztabaidatzen ari dira oraindik, baita erretiro pentsioak jaso ahal izateko gutxieneko urte kopurua ere.

Bizkaian (76.002) eta Gipuzkoan (41.679) langabeziak gora egin zuen 876 eta 216 pertsonatan, hurrenez hurren. Langabeziaren egoera horrez gain, enplegua erregulatzeako ehunka espediente (EEE) daude, lanaldi murriztua edo enpleguaren aldi baterako etena jasaten ari diren milaka euskal herritarrei eragiten dietenak. 2009. urtearen amaieran, EEEK 70.000 euskal herritar ingururi eragiten zieten.

Ipar Euskal Herrian, bestalde, ez dugu eskura datu ofizial eguneratu-rik, baina badakigu langabeziak milaka pertsoneri eragiten diela. Dena den, datu ofizialen arabera, 2009an jarduera ekonomiko-industrialaren tasarik altuena eta eboluzio hobea zuen Euskal Herriko lurraldea Iparralde zen. Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian, berriz, aktiboen kopuruak behera egin zuen bi urtez. Langabezia tasari

dagokionez, 2007 eta 2009 urteen artean %4,25 egin zuen gora Hego Euskal Herrian eta %0,68 baino ez

Krisia mantsotzen ari dela adierazten duten zenbait datu positibo egon arren, adituen ustez langabeziak gogor astinduko gaitu 2010 eta 2011 urteetan

Iparraldean. 2009ko datu ofizialei erreparatuz gero, Euskal Herriko batez besteko langabezia tasa %8koa zen eta Europar Batasuneko, aldiz, %7koa. Nafarroa Garaian tasa %10,89an zen, Araban %9,88an, Bizkaian %8,63an eta Gipuzkoan %7,73an. Urteko lehen hiruhilekoan, ikusi dugun moduan, langabezia tasak nabarmen egin du gora Hego Euskal Herrian, %13,47ra iritsi arte.

Langabeziak hazten jarraituko du

Krisia mantsotzen ari dela adierazten duten zenbait datu positibo izan arren, adituen ustez langabeziak oraindik gogor astinduko gaitu 2010 eta 2011 urteetan. Horrenbestez, Espainiako Estatuan barne nahiz kanpo azterketa-zerbitzu nagusi guztiek 2010ean langabeziak biztanleria aktiboaren %19,6ari eragingo diola diote, eta gobernuaren aurreikuspenek tasa %19koa izango dela diote. Eta 2011 urterako aurreikuspenak berdintsuak dira: azterketa zerbitzuen arabera %19,6an eutsiko dio eta, Espainiako Gobernuaren arabera, %18,4koa izango da. Egia da Euskal Herrian langabezia ez dela proportzio berean haziko, baina hazten jarraituko du aurrean eta datorren urtean. Hazkunde ez da berdina izango lurralde guztietan eta, seguruenik, Iparraldean gainerako lurraldeetan baino gutxiago haziko da langabezia tasa. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Alejandro Olmos Gaona

«Kanpo zorrak gainontzeko arazoak baldintzatzen ditu»

Kanpo zorraz hitz egiten dugunean zertaz ari gara? Zergatik esaten da ez dela bidezko? Zalantza horiekin hurbildu gara Alejandro Olmosengana. Rafael Correa Ekuadorreko presidenteak deitu zion kanpo zorraren tranpak biluztu zitzan eta Argentinan ere horretarako dihardu lanean, ofizioz historialaria den arren.

GORKA BERASATEGI

GORKA BERASATEGI

Zein da egungo kanpo zorraren jatorria?

Zorpetze prozesua 70eko hamarkadan hasi zen, petrodolarren ikaragarritzko isuriak baldintzatu zuen egoera. Jose Martinez de Hozek –Argentinako diktadura garaiko plan ekonomikoaren arduradun zenak– epaitegi aurrean deklaratu zuen dirutza hori herrialde periferikoetara bideratzen ez bazen *crack* ekonomiko itzela sor zitekeela eta diru hori neurrigabe maileguan eman behar zela, dirua bueltatu zitekeen edo ezin zitekeen kontuan hartu gabe.

Maileguez herrialdeen garapenerako balio dutela diote dirua uzten dutenek. Aldiz, kanpo zorrak garapen bidean dauden herrialdeen irabazi gehienak xurgatzen ditu.

Kanpo zorrak dirua mailegutuan ematen duenari mesede egiteko balio du soilik. Argentinaren kasuan, diktadura garaiko zorra aztertu zuten ikuskatzaileek ebatzi zuten: Batetik, zorrak ez zuela justifikazio ekonomikorik ezta administratiborik ere –Batzorde militarra 1976an boterera heldu zenean, 7.800 milioi dolarrekoa zen zorra, diktadura bukatzean 46.000 milioiokoa–. Bestetik, zorraren dirua



Alejandro Olmos Gaona kanpo zorraren ikerketan aditu nagusienetakoa da Argentinan.

nora joan zen argitu gabeko kontua zela. Urte batzuk beranduago, Munduko Bankuak zehaztu zuen nora bideratu zen diktadura garaiko zorra. Kapitalaren %40ak herrialdetik kanpora ihes egin zuen, %30a ihes egin dako diru horren interesak ordaintzeko erabilia izan zen eta gainontzekoa armamentua erosteko. Beraz, Argentinako herriak ez zuen xentimorik ikusi. Ekuadorren ere gauza bera gertatu zen eta Brasilen ere berdin.

Argentinaren kasuan diktadura garaian gertatu zen herrialdearen zorpetzea. Hala gertatu zen beste herrialdeetan ere?

Hain zuzen, zorpetze prozesua diktadura militarra jasan zuten herrialde guztietan eman da. Diktadura zegoen Argentinan, Brasilen, Txilen, Ekuadorren, Uruguayn, Bolivian... Ez zegoen inolako muga legalik, Kongresuek ez zuten funtzionatzen... Beraz, molde beretik datozen politikez ari gara hizketan.

Urte horietan interes tasek gora egin zuten nabarmen. Zein ondorio izan zituen horrek?

Kanpo zorra tasa aldakorrarekin sinatu zen 70eko hamarkadan. AEBetako barne arazoak medio, Erreserba Federalak interesak igo zituen modu ikaragarrian. 1979 eta 1983 urteen artean

“Ekuadorrek ez zuen ezertxo ere ordaintzeko beharrik”

Rafael Correa Ekuadorreko lehendakariak herrialde hartako kanpo zorra ikertzeraz deitu zintuen 2007an. Zer aurkitu zenuten?

Ikuskaritza txostenak ia 50.000 orrialde ditu, kanpo zorraren azterketa zehatza da, 1976. urtetik 2000. urtera artekoa. Emaita benetan esanguratsua izan zen, lehenengoz, dokumentu eta artxibo pribatu eta konfidentzial guztietara heltzeko aukera izan baikenuen. Kanpo zorraren mekanismo osoa nolakoa den ikusi genuen. Nazioarteko erakundearen konplizitatea baieztatu, kontratuen zitalkeriaz jabetu... Hau da, kanpo zorraren erradiografia zehatza egin ahal izan genuen.

Txosten hura eskuan, Correak zorra negoziatu zuen mailegu emaileekin. Nola izan zen negoziaketa?

Zorraren ordainketa bertan behera geldituko dela jakitera eman zen. Noski, mailegu emaileei ez zitzaion batere gustatu. Correak egin zezakeen hoberena dirua utzi ziotenei AEBko auzitegietan kontra egitea litzake baina sekulako eskandalua ekarriko zuen horrek. Ez eskari hutsarengatik, lehenengoz AEBko epaitegietan kanpo zorraren funtzionamendua biluzteko arriskua zegoelako baizik.

Beraz, txostena aurkeztu nuenean, Chase Morgan

bankuko abokatuak deitu zidan esanez: “Olmos, hau nola konpontzen da?” Haiek ondo zekizkiten kontratuen gora beherak, iruzur ekintzen xehetasunak, etab.

Ekuadorrek inoren laguntzarik jaso gabe –solidaritate adierazpenak aparte–, 12 milioi biztanleko herrialdea izanik, sekulako arazo ekonomikoekin eta egoera larrian egon arren, Correak zor zenaren %30a bakarrik ordainduko zuela jakinarazi zuen, ezta xentimo bat gehiago ere. Ekuadorrek ez zuen ezertxo ere ordaintzeko beharrik baina baldintzak ez ziren gatazka zuzenerako aproposak. Mailegu emaile guztiek onartu zuten proposamena txin-tik esan gabe. Denek, salbuespenik gabe.

Argentina antzeko neurriak hartzeko moduan da?

2001ean zorraren *default*-a iragarri zenean, inork inbaditu gintuen? Kanpotik jasotzen dugun horniketa bertan behera gelditu zen? Horixe ezetz. Are gehiago, Argentina 2006ko urte bukaeran hasi zen zorra ordaintzen berriz ere. 2003, 2004 eta 2005eko hazkundeak, ez du inork esaten, baina zorra ordaindu ez genduelako izan zen. Erakunde multilateralei ordaindu genien baina gainontzekoei lehenengoz ez genien ordaindu eta diru hori kanpora joaten ez bada, herrialdean inbertitzen den dirua da.

tasek %6tik %22ra egin zuten salto eta zorra ordaintzea ezinezko bihurtu zen behin betiko. Birfinantzatzea etorri zen orduan eta zorra ordaintzeko gehiago zorpetu zen herrialdea.

Alejandro Olmos zure aitak 1982an zorpetze prozesuaren arduradunen aurkako epaiketa prozesua abiarazi zuen eta 2000 urtean iritsi zen epaia. Zer zioen sententziak?

Epaileak ez zuen arrisku handirik hartu nahi izan eta esan behar zuena esan behar zituen hitzak erabili gabe esaten ahalegindu zen. Dena den, zorpetze prozesuan legea hautsi zela ebazti zuen eta, beraz, zorpetzea legez kanpokoa izan zela ondoriozta daiteke haren terminoetatik. Horrez gain, Munduko Moneta Funtzaren konplizitateaz hitz egiten du baita ere eta elkarlan hori frogatua geratzen da epaiketa prozesuko ebidentzietan.

Epaileak Kongresura bidali zuen hark ebatzitakoa. Zer egin zuen botere lege-gileak?

Kongresuak ez du sekula ezertxo ere egin.

Cristina Fernandez Kirchnerrek dioenean kanpo zorra legezkota dela, legez kanpoko izateari utzi ziola demokrazia-

ko lehen Gobernuak onartu zuenetik, zer datorkizu burura?

Nik eskutitza bidali nion lehendakariari urtarrilaren 14an, esanez, abokatu den heinean, ezin duela alde batera utzi ordena juridikoko printzipio garrantzitsuenetakoa dena. Hau da, legez kanpokoa dena ezin dela legezko bihurtu botere exekutiboaren bidez ezta Kongresuaren bidez ere, eta zilegitasunik gabeko ekintzek ezin dituztela ondorio zilegiak sortu. Tira, berak ondo dakizkien gauzak, abokatu baita. Handik 20 egunera Lehendakariatzako idazkari nagusiak eskutitz luzea bidali zidan, nire aita-ren lan aberkoia goraipatuz baina, berriz ere, Kongresuak dena legeztatu duelako, ezer egitea ezinezkoa dela azpimarratuz.

Kontratueta sinatu izan diren baldintzak salatu dituzu. Zein baldintza dira horiek?

Gauza bat da bermeak adostea eta beste kontu bat Argentinak sinatu

Kanpo zorrerako dirua hezkuntza eta osasunerako bideratuko dena baino handiagoa da Argentinan

zituen klausulak sinatzea. Mailegu emaileak sinatzen ari zirena legez kanpokoa zela ondo zekitenez, honakoa zioen klausula ezarri zuten: “Kontratu hau baliogabea balitz, legez kanpokoa balitz edo ezin bada gauzatua izan, Argentinako Errepublikak uko egiten dio kontratuaren baliogabetasuna eskatzeari”.

Zenbateko esfortzua da egun Argentinarentzako kanpo zorra ordaintzea?

Gaur Argentinako kanpo zorra, datu ofizialen arabera, 177.000 milioi dolarrekoa da. Ekonomia ministerioak duen planaren arabera, Argentinak 2089 urtera arte ordaindu beharko du zorra, urtero ordaintzeko ezarrita dituen kopuruak ordainduko balitu. 2089an zorraren ordainketarekin bukatzea fikzioa da. Aurten kanpo zorrerako bideratuko den diruarekin, pobrezia desagerrarazi daiteke Argentinan. Kanpo zorrerako gorde den dirua hezkuntza eta osasunerako bideratuko den diru kopurua baino gehiago da.

Kanpo zorra da Argentinaren arazorik larriena?

Zalantzarik gabe. Gainontzeko arazoak baldintzatzen dituen faktorea da. ■

Liburua eta DVDa Garabideren eskutik

GARABIDE ELKARTEAK *Euskararen berreskuratzea: hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk* izeneko DVD-liburuxka argitaratu du. Materialaren helburua da euskararen berreskuratze prozesua eta hori bideratu duten gako nagusiak hizkuntza gutxituekin elkarbanatzea. Lau hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez) argitaratu dute materiala eta Euskal Herriko aurkezpena egin baino lehen, apirilaren 22an, New Yorken (AEB) agertu dute lana, Nazio Batuen Erakundeak antolatutako

Munduko Herri Indigenen Biltzarrean. Proiektuan hainbat eragileren laguntza izan dute, hala nola, Xabier Mendiguren Bereziartu, Jose Angel

GARABIDE.ORG



Irigarai, Joseba Intxausti, Jon Sarasua, Koro Zumalabe, Joxe Aranzabal, eta Amaia Anterorena. Garabi-

deko kideek maiatzaren 14an aurkeztuko dute lana Andoainen, Martin Ugalde Kultur Parkean.

‘Gipuzkoa euskararekin bat’ Realaren elastikoan

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK 1,2 milioi euroko diru-laguntza hitzartu du Reala futbol taldearekin. 2010-2011 denboraldirako egin dute hitzarmena eta elastikoa-
ren aurrealdean jokalariek eraman-
go duten leloa haxe izango da: “Gipuzkoa euskararekin bat”.
Uztailaren 1etik aurrera hasiko dira elastikoen bidez lelo hori barreiatzen.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

TALAIAN

Esne merkea edo kalitatezkoa?

Azkeneko hamarkadan esne ustiategien %80 desagertu da Hego Euskal Herrian. 800 ustiategi baino gutxiago geratzen da orain. Erritmo hori mantentzen bada, esnezale sektorea denbora gutxian desagertu egingo da. Sektore hori galduz gero, gure baserriek eskaintzen diguten kalitatezko esnea ere galduko da. Eta beste sektoreetan egokitzen errazak ez diren milaka lanpostu galduko dira baita ere. Jasaten ari diren birmoldaketa ikaragarria da: %64 murriztu da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, eta %48 Nafarroan. Hori ondoriozta daiteke esnearen merkaturatzeaz joan den astean Bilbon izandako eztabaida batetik. EHNE sindikatuaren eta esne industria ordezkatzan duten enpresen artean –Zamorako Giza, Euskal Herriko Kaiku, eta honekin kolaboratzen duen Kordobako Covap– egin zen eztabaida hori. Larritasuna areagotuko da 2015 urtean, Europar Batasunak merkaturua liberalizatzen duenean. Espainiako Estatuan prezioak %15 jaitsiko dira. Nahikoa da esatea esnezalearentzat produkzio kostua litroko 35 euro zentimotan dagoela, baina banaketa enpresa handiek 28 eta 30 zentimo artean ordaintzen dietela.

Zergatik egoera larri hori? Agerikoa da bi produkzio eredu daudela. Alde batetik intentsiboa, industrial, produkzio merkea lehenesten duena, enpresa handiek eta administrazioek lagundua. Eta bestetik kalitatezkoa, gure abere esplotazioetatik datorrena, EHNE sindikatuak eta baserritarren zati batek defendatua. Erdian kontsumitzaileak daude. Horiek, baserritarrek ezin eskaini dizkieten erraztasun guztiak eta prezio merkeak aurkitzen dituzte merkatal guneetan. Administrazio publikoek, ez badute esnezale sektorea desagertzetik nahi, kalitatezko esnearen kontsumoa bultzatu beharko lukete eta laguntza gehiago bideratu. Ez industria handietara.

Juan Mari Arregi

Garbiñe Mendizabal EAJko lege-
biltzarkideak *Noticias de Gipuzkoan*
esanak: “PSE eta PP, egungo

Eusko Jaurlaritzaren sozio nagusia, ekimenak sustatzen ari dira hezkuntza sisteman eta EITBn euskarak izan behar duen presentzia dagoen kontsentsu soziala higitzeko. Fikzio bat sortu nahi dute: horren arabera, gizarte erabat elebidunean bizi gara, eta ondorioz, euskararen sustapenerako politikek indarra eta dinamismoa galtzen joan behar dute. Azken batean, hizkuntza politika iraganeko herentzia deserosoa litzateke, eta gutxi-ka-gutxi-ka desagertzen joan beharko luke”.

Rufino Iraolak bere blogean esan-
ak: “Beraz politikoen elukubrazio burutsuen gainetik, ikastola eta euskaltegien lan eskergaz aparte eta erabilpen-planekin batera, hasi beharrean gaude ‘euskararen eremu autonomoaz’ hitz egiten, bestela iraupenean sinesteak ez du zentzurik. Nik espero dut, oraindik ere, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñean euskaldun gehiago izatea, baina ez dut espero eremu horietan inoiz gizarte euskaldunik”.

Gizarteratuz doa “prozesu demokratikoa”

IRUNEKO agerraldiarekin ezker abertzale historikoak beste urrats bat egin du “prozesu demokratikoaren” ibilbide luzean, funtsean ETari lehenbiziz prozesu berri honetan su-etena eskatu diolako. ETari Bruselako adierazpenari modu eraikitzailean erantzuteko eskakizunak hori esan gura du. Zeharkakoa, baina eskaera argia da. Eta hala antzeman du baita ere klase politikoak, hori bai, ohi moduan argi utziz ez dela nahikoa, gehiago behar dela eta berandu datorrela.

Baina ñabardunak ere agerikoak dira bata eta bestearen artean. PPren atea itxita ageri da, gehienez legez. PSOEk ere formalki antzera jarraitzen du, baina atea hasi da irekitzen apurka, ohi moduan, Jesus Eigurenen aldetik: *Berria*-n larunbatean egindako elkarrizketan argi adierazten zuen sinesten zuela ezker abertzalearen borondatean, baina oraindik ez zela sozialisten laguntza lortzeko unea, horretarako ETak oraindik erabakirik garrantzitsua hartu beharko zuela, armak behinbetiko uztea –armena esan gabe, baina argi adieraziz–.

EAJrekin Batasunak izandako bilerak ere aurrerapausoen berri dira, areago jeltzaleek sinesgarritasuna ematen badiote ezker abertzalekoek kontatutakoari. Baina esanguratsuenetakoa bileraren berri ematea bera da. Halakoetan ohiko den moduan, apurka gauzak azalartzen hasten dira.

Agirira itzuliz, bitxia da hasierako esalditik prozesu hau gehiengoz onartu dela argi eta garbi azpimarratzearena, hori garbi uztea oso garrantzitsua dela adieraziz. ETaren erantzuna da orain funtsezkoa eta, denak pentsarazten du su-etinare-



ARGAZKI PRESS / J.B.

kin erantzungo duela, prozesuaren osasunerako hori egitea gehien komeni denean. Bestela panorama txarra ezker abertzale historikoarentzat. Eta bidenabar euskal gizartearentzat ere bai.

NA-BAI-K bere barne zalapartekin jarraitzen du, oraingoan batez ere Batzarrek –NaBairen jarreraren aurka– bat egin duelako Nafarroako Legebiltzarrak onartu berri duen biktimei buruzko lege berriarekin. Aspalditik iragartzen ari den txokearen beste pasarte bat. Ez da oraingo kontua Batzarrekiko urruntasuna, batez ere Aralarrekikoa. Zabaletaren alderdiak PSNtik aldendutakoekin eta Ezker Batuarekin batera, beste zerbait eraikitzen ari dela leporatu dio. Berriki Nafarroan 36ko Gerran fusilatutakoak omentzeko Iruñean egindako ekitaldian ikusi omen ziren hiru taldeon elkarlanaren zantzu batzuk. Batzarren mugimenduak aspaldikoak dira eta oso atzean geratu da 1999an HBrekin batera EH osatu zueneko. Identitatea, gatazka eta biktimen eremuetan mugimendu oso esanguratsuak egin ditu azken urteetan eta Legebiltzarrean gertatutakoa horien

agerpen publiko esanguratsuen da seguruenik. Garai batean EAEko alderdi anaia zuen Zutik-ekin ere ez du ia loturarik eta hori ere mugimendu horien adierazle bada.

NaBai-n topo egin arte, EAJk eta EAK behin ere ez dute gertuko izan Batzarrekoen ibilbide politikoa. NaBaiko bazkideen harremana korapilatsua bada, are gehiago Batzarrekikoa. Aralarrek, aldez, EArekin ia akordioa lortu duela zabaldu du eta EAJrekin gertu dagoela. Eta, Maiorga Ramirezen ahotik, EAK berretsi du gertu direla. EAJrekin ere ez omen dira urruti. Aralar da negoziazio politiko hauen eduki eta gidaritza eramaten ari dena eta, publikoki bederen, NaBaira tentsioa ekarri duena.

Ezker abertzale historikoak gogor kritikatu du Aralar eta EAJren jarrera (www.EzkerAbertzale.net orrialdean), NaBai bi alderdi horien eta *Diario de Noticias*-en intereseko jokaldia dela salatuz, eta EArekin sartzea saihestuz. EAK azkenean NaBairen aldeko apustu egin duela dirudi eta hori bada zerbaiten zantzu: oraingoz behintzat Batasunarekiko hauteskunde aliantza baztertzen dela Nafarroan.

Mikel Irizar

Independentzia

Urtero bezala, bainuetxean eman dut pazko astea Katalunia aldean, gorputza beratzten eta burua freskatzten. Hidroterapiarekin tartekatuta, *Avui* egunkaria eta Imanol Murua

Uriaren kronika Loiolakoaz izan ditut irakurgai iradokitzaileak. Eta etxera itzultakotan artikulu honen eskaria nuen e-postan. Abagune primerakoa pentsatutakoa antolatzeko.

KATALUNIA. Hauteskunde bezperatan dauden arren, giro etsia sumatu dut iritzi artikuluetan. Estatut kimatua Epaitegi Konstituzionaletik are kimatuagoa irtengo dela irentsita eta alderdi politikoei horren aurrean egin dezaketenarekin ez oso itxaropentsu. Eta hala ere, gero eta argiago aipatzen da ideia bat: "Espainian egoteko ahallegina egin dugu eta ez gaituzte duintasunez egoten utzi nahi; alde egiteko ordua iritsi da".

LOIOLA (I). Liburu bikaina idatzi du Imanolek, eta lan bikaina egin zuten Loiolako negoziatzailerek. Harrituta gelditu naiz adostu zuten zirriborroaren kalitate politikoa. Eta neurri berean izutu nau zirriborroa bere horretan onartu ez zutenen itsutasunak. Ziur nago gutxietsitakoaren erdiarekin oso pozik leudekeela gaur.

Edonola ere, Loiolako porrotak beste fase bat ireki du eta euskal mapa politikoa mugitzen ari da. EAEko agintean unionistak daude eta Katalunian bezala hemen ere independentziaz gero eta garbiago hitz egiten da.

ESPAINIAREN GAINBEHERA. Gürtel eta Pretoria kakaleku, Aznar eta Rouco lider, Belen Esteban eta Julian Muñoz idolo, Garzon eta Varela lehian, Zapatero eta Salgado krisiarekin itota... Aspaldian ez zuen Espainiak hain aurpegi kutre eta kasposorik erakutsi munduaren aurrean. Oso nazionalista behar du hortik harrotasuna ateratzeko.



DANI BLANCO

Eta bai, krisi orokorrari aurre egiteko espainiar nazionalismoa sendotzea hartu dute eginkizun, baina horrekin ari dira aldi berean bestean independentzia zaletasuna hauspotzen, gero eta zailago zaigulako Espainia horretan jarraitzea.

INDEPENDENTZIA? Irudipena daukat oso aberri zale ez garenak ere gero eta gehiago gaudela Espainiatik bereizteko prest. Honetarako Europa segurtasun sare moduko bat da, bakarrik geratzeko beldurrarentzat antidotoa. Uste dut euskal herritar asko eta asko sentituko ginatkeela eroso Europarekin harreman zuzenean, Espainia atzean utzita. Bitxia da nolako pozez saltzen duen Idoia Mendia bozemaileak euskal emaitza ekonomikoak espainolak baino askoz hobeak direneko informazioa.


ASIMILAZIOA. Baina kontuz kanpaibueltekin. Paradoxa dirudi, baina arrazionalki independentziaren aukera indartu bada, eguneroko bizimoduan gero eta asimilatua go gaude kultura nagusietara. Espainia eta Frantzia hartzen ditugu ia guztirako erreferentzia, pentsamolde autonomoa garatzeko lanari uko eginda. Eta bitartean badaude akats larriak: transmisioan etenak, diskurtsoan hankasartzeak, jarretetan okerrak, antolaketan hutsuneak... Lortu dugu askorentzat ez izatea bat ere erakargarri euskaraz egitea edo euskal herritar agertzea.

LOIOLA (II). Haatik, badago itxaropenerako motiborik. Loiolan posible izan zenak erakusten du bidea. Ez dut uste prozesua berriro errepikatuko denik, beste bat izango da gertakarien hurrenkera. Baina Batasuna ohian gertatu den lurrikarak bere ondorio guztiak izaten baditu, aukera izango da gure akatsak zuzentzeko eta unionistenak baliatzeko independentziara bidean. Eta bide luze horretan hauteskundeak garrantzitsuak dira, baina aurkariari gaina hartzeko lan asko eta ona egin behar da. Egutero eta nonahi. ■

Paradoxa dirudi, baina arrazionalki independentziaren aukera indartu bada, eguneroko bizimoduan gero eta asimilatua go gaude kultura nagusietara. Espainia eta Frantzia hartzen ditugu ia guztirako erreferentzia, pentsamolde autonomoa garatzeko lanari uko eginda

ASTE HONETAKO

zozketa



Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIZPUBOA

www.aquariumss.com

2



Lagun armatua Raul Zelik

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Navaz y Vides kalea 1
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

3



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo, BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

4



Txuri Urdin

2 harpidedunentzat launa
sarrera opari

Anoetako pasealekua, 24
Donostia GIPUZKOA

www.eltxuri.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2226. Argia)

ELLAURI HOTELA

• Barrutia Ikastetxea (Gasteiz)

CHILLIDA-LEKU MUSEOA

• Iban Arana Altuna (Arrasate)
• Aitor Zuberogoitia Espila (Bilbo)
• Ramon Iriondo Bergara (Hernani)

TXURI URDIN

• Dioni Beraetxe Aranburu (Usurbil)
• Jose Manuel Larrañaga Garmendia (Zumaia)

INGURU ABENTURA

• Martzelino Elortza Izeta (Segura)
• Adur Euskaltegia (Gasteiz)
• Andres Alberdi Gorostiaga (Getaria)

CD SORTA

• Gaintzako Udal Liburutegia (Gaintza)
• Ander Zabaleta Egaña (Donostia)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

<http://www.argia.com/makilak.htdocs>